

**“Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen  
azterketa eta beraien egoeraren urteroko  
txostena: 2017. urtea”**





Gipuzkoako Foru Aldundiko  
Ingurumeneko eta Obra Hidarulikoetako  
Departamentuarentzat

**Txostena**

**Pasaia, 2017.eko abenduak 21**

<b>Dokumentu mota</b>	Txostena
<b>Dokumentuaren izenburua</b>	"Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen azterketa eta beraien egoeraren urteroko txostena: 2017. urtea"
<b>Data</b>	2017.eko abenduak 21
<b>Kodea</b>	IM17CLOROF
<b>Bezeroa</b>	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia

<b>Lan-taldea:</b>	Marta Isabel Revilla Rodríguez Almudena Fontán Gómez Iratxe Menchaca Cortázar Joxe Mikel Garmendia Etxandi
--------------------	---

<b>Proiektu-burua:</b>	Marta I. Revilla Rodríguez dk. 
<b>Ikuskatua:</b>	Juan Bald Garmendia dk., Itsasoetako eta Kostaldeetako Ingurumen-kudeaketa sailaren koordinatzailea 

**Oharra, txosten hau honela aipatu behar da:** Revilla, M., A. Fontán, I. Menchaca, J.M. Garmendia, 2017. Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen azterketa eta beraien egoeraren urteroko txostena: 2017. urtea. AZTI-k Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 84 or.

# AURKIBIDEA

<b>ESKER ONAK</b> .....	<b>5</b>
<b>1 AURREKARIAK ETA HELBURUAK</b> .....	<b>7</b>
<b>2 METODOLOGIA</b> .....	<b>9</b>
<b>2.1 Lagintze-puntuak</b> .....	<b>9</b>
<b>2.2 Uretako ingurune-aldagaiak</b> .....	<b>15</b>
2.2.1 Ur-laginak hartzea eta aldagaiak <i>in situ</i> neurtzea .....	15
2.2.2 Klorofila-kontzentrazioaren azterketak .....	19
2.2.3 Datuak egiaztatu eta gordetzea .....	20
2.2.4 Uraren kalitatearen zenbatespena klorofilaren arabera.....	21
2.2.5 Isurien adierazle diren mantengutza: amonioa eta fosfatoa.....	23
<b>2.3 Aldagai meteorologiko eta hidrografikoetan anomalien azterketa</b> .....	<b>26</b>
<b>3 EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b> .....	<b>28</b>
<b>3.1 Klorofila kontzentrazioa Gipuzkoako estuarioetan</b> .....	<b>28</b>
3.1.1 Aldakortasun espazialaren eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak.....	28
3.1.2 Estuario bakoitzeko urteroko zikloaren azterketa .....	30
3.1.3 Estuario bakoitzeko klorofilaren joera epe luzera .....	37
<b>3.2 Oxigeno disolbatuaren edukia Gipuzkoako estuarioetan</b> .....	<b>47</b>
3.2.1 Espazio- eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak.....	47
3.2.2 Estuario bakoitzeko epe-luzerako joerak.....	49
<b>3.3 Amonioaren eta fosfatoaren kontzentrazioak</b> .....	<b>61</b>
3.3.1 Aldakortasun espazialaren eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak.....	61
3.3.2 Isurien adierazle diren mantengutzaen egoera 2017.ean .....	62
<b>3.4 Aldagai meteorologiko eta hidrografikoak</b> .....	<b>69</b>
3.4.1 Ibai- eta euri-erregimenaren anomaliak Urola estuarioan 1998-2016 denbora tartean .....	69
3.4.2 Tokiko eta eskualdeko eskala geografikoa .....	70
3.4.3 Telekomunikazio klimatikoak.....	71

3.4.4	Emariaren aldakortasunari eta bere klorofilaren gaineko eraginari buruzko ondorioak.....	72
<b>4</b>	<b>ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.....</b>	<b>74</b>
<b>5</b>	<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>79</b>
<b>6</b>	<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>82</b>
6.1	Klorofilako datuak Deba ibaiaren estuarioan.....	82
6.2	Klorofilako datuak Urola ibaiaren estuarioan.....	82
6.3	Klorofilako datuak Oria ibaiaren estuarioan.....	83
6.4	Klorofilako datuak Urumea ibaiaren estuarioan.....	83
6.5	Klorofilako datuak Oiartzun ibaiaren estuarioan.....	84
6.6	Klorofilako datuak Bidasoa ibaiaren estuarioan .....	84

## ESKER ONAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren interesari esker egin ahal izan da lan hau. Bereziki eskertu nahi zaio Iñaki Bañares-i bere laguntza eta parte-hartzeagatik.

AZTI-ko Itsas Ikerketako Sailean, Ainhoa Arévalo Pozo, Maite Cuesta Trula, Irene Gómez Pérez, Deniz Kukul Villanueva, Marivi Lucero González, M<sup>a</sup> Inmaculada Martín Mikelarena eta Naiara Serrano Servan-ek egin zituzten klorofila-iragazketa eta analisiak. Maitek ere sartu zituen datuak datu-basean. Inmaculada izan zen analista-taldeak egindako lanen koordinazioaren arduradun.



## 1 AURREKARIAK ETA HELBURUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldagai fisiko-kimiko ezberdinak aztertzeke lagintze-kanpainak egiten ditu estuarioetan 80ko hamarkadako erdialdeaz gero.

AZTI-Tecnaliak Aldundiak emandako ur-laginetan klorofila kontzentrazioen analisiak egiten ditu 1999. urtetik eta sistema hauen kalitateari buruzko urteroko txostenak ere lantzen ditu.

Iraupen luzeko serieek estuarioen ingurumen kalitatearen hiru hamarkada ingururen bilakaera deskribatzea ahalbidetu dute.

Hala, urtero, txostenetan uretako klorofilaren eta oxigenoaren kontzentrazioaren joera deskribatzen da, hain zuzen, ingurumen interes handia duten aldagaiak.

Gainera, mantengaien kontzentrazioen (amonioa eta fosfatoa) eta uhertasunaren epe-luzeko aldaketen berariazko azterketa batek Gipuzkoako arroetan saneamenduak izan duen eraginkortasuna frogatzea ahalbidetu zuen (Revilla et al., 2011b).

Bestalde, urteroko txosten batzutan kontuan hartu dira sedimentuen ezaugarrien azterketak (granulometria, materia organikoa, erredox potentziala, metal astunak eta hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP)). Hain zuzen, 2009. eta 2011. bitartean Deba, Urola eta Oria ibaien estuarioetako sedimentuen ezaugarriak aztertu ziren. Gainera, azterketa hauetan, sedimentuek bizidunengan izan dezaketen toxikotasun-arriskua ere zenbatetsi zen (Fontán et al., 2010; Revilla et al., 2011a, b).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaerei erantzunez, beste azterketa zehatzak ere egin dira AZTIIn. Horri esker, Gipuzkoako estuarioetako eta itsasertzeko uren eta sedimentuen egoera kimikoari buruzko informazio zabala, eta baita ingurune horietan bizi diren komunitate biologikoei buruzkoa ere (planktona eta bentosa), eskuragarri dago (ikus, adibidez, Belzunce et al., 2011; Muxika eta Valencia, 2011; Muxika et al., 2017).

Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak eskatuta landu da. Azterketa hau estuarioen ingurumenak 2017. urteraino izan duen bilakaerari dagokio eta 1999.az gero egin diren urteroko txostenen jarraipena da.

Ondoren, erabili diren datuen jatorria eta azterlan honen helburu zehatzak zerrendatzen dira.

- **1. HELBURUA: “a” klorofilaren** aldakortasun espazialaren eta denbora-aldakortasunaren ereduak deskribatzea. Klorofila, fitoplankton-biomasaren hurbilketa moduan eta fitoplanktonak itsas ingurunean gertatzen den nitrogeno eta fosforo aberasteari dion erantzunaren adierazle bezala, aldagai erabilgarritzat jotzen da (Harding, 1994). Klorofilan oinarritzen den adierazle bat erabilia (6 urteko 90. pertzentila zenbatetsiz) uren kalitatean egon diren aldaketak ere balioztatuko dira txosten honetan. Adierazle hori eremu desberdinetarako zenbatetsiko da estuario bakoitzean. Datuak jasotzeari dagokionez, Aldundiko teknikariak izango dira ur-laginak jaso eta AZTI-ren Pasaiako egoitzara bidaltzearen arduradun. AZTI-ko langileek aztertuko dituzte laginak eta landuko dituzte datuak.
- **2. HELBURUA: disolbatutako oxigenoaren** epe luzerako bilakaera deskribatzea. Estuarioetan, uren kalitateari lotzen zaizkion aldagai nagusietako bat da oxigenoa. Oxigeno-maila nola eragile naturalek (fotosintesia, arnasketa, nitrifikazioa, difusioa...), hala eragile antropikoek (eutrofizazioa eta materia organiko eduki handia duten isuriak) baldintzatzen dute. Aldundiko teknikariak izango dira hainbat aldagai fisiko-kimiko *in situ* neurtzearen arduradun, uretan disolbatutako oxigenoa barne. Estuario batzuetako denborazko segidak 1988.etik gaur egunerainokoak dira. Datu horiek, jatorrizko egoera-orrietan (paperean) emango dira, AZTI-ko langileek kalkulu-orrietan sartu ditzaten, ondoren lantzeko.
- **3. HELBURUA:** 2017.ean neurtutako uretan disolbatutako mantenugaien kontzentrazioak (**amonioa eta fosfatoa**, hain zuzen), aurreko neurketekin alderatzea. Informazio hau Aldundiaren datu-basean dago (dabu-base honi buruzko zehaztasun gehiago eskuratzeko, ikus Revilla et al., 2011b). Mantenugaien kontzentrazio hauek hartu dira kontuan, bere muturreko balioek gaizki araztutako hiriko hondakin-uren adierazle diren heinean. Gainera, mantenugaien gehiegizko kontzentrazioek eutrofizazio arazoak sor ditzakete estuarioetan, fitoplanktonaren edo/eta makroalgen hazkuntza bizkortzen baitute, ekoiztutako biomasaren pilaketa eta oxidazioa eraginez.
- **4. HELBURUA:** Azken hamarkadetako prezipitazioen aldaketa ereduaren eta ibaien emariaren deskribapena. Helburua, 2014., 2015. eta 2016. urteetan Urola ibaiaren estuarioan ikusitako klorofilaren igoera ibai-erregimenaren aldakortasunarekin edo, aitzitik, arroaren saneamendu eskas batekin erlazonaturik dagoen jakitea da.



## 2 METODOLOGIA

### 2.1 Lagintze-puntuak

Gipuzkoako sei estuario nagusietan (Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa) egin ziren aldagai fisiko-kimikoak eta klorofila aztertze laginketak. Añorga errekan (Ibaeta) eta Mijoa ibaian (Mutriku) ere lagintze-puntu bana aztertu zen (**1. taula**). Aldagai fisiko-kimikoak bai *in situ* egindako neurketei (tenperatura, oxigenoa, pH, gazitasuna eta eroankortasuna) eta baita laborategian egindakoei ere (esaterako, uhertasuna eta mantenugaiak) derizkie. Lagintze-puntu batzuk 2000ko hamarkada hasieran utzi ziren, baina gehienek 25 urte baino gehiagoko denborazko segida osatzen dute aldagai fisiko-kimikoentzat eta 15 urte baino gehiagokoa klorofilarentzat.

**1. taula.** Gipuzkoako estuarioen jarraipenean eta eskuragarri dauden datu-segidetan aztertzen diren lagintze-puntuak. Gehieneko gazitasunaren tartea adierazten da. Gaur egun klorofila neurtzen den lagintze-puntuak kolore grisez nabarmentzen dira.

Estuarioa	Lagintze-Puntuak	Kokapena	Kodea	DENBORAZKO SEGIDA		GAZITASUNA (maximoa)
				Fisiko-Kimikoak	"a" klorofila	
<b>DEBA</b>	DEB50000S	Sasiola zubia	6	1987-	1999-	<18
	DEB51000S	Astigarribia auzoa	5	1987-2001		<18
	DEB52200S	F.E.V.E. zubia	4	1987-		<18
	DEB53400S	Lasao baserria	3	1987-	1999-	18-30
	DEB54300S	Finca Laskibar ontziola	2	1987-		18-30
	DEB54900S	Deba zubia	1	1987-	1999-	>30
	DEB55400S	Itsasoratze kai-muturra	0	2001-		>30
	MLJ04450S	Mijoa ibaiak: MUTRIKU		2004-		<18
<b>UROLA</b>	NAR07500S	Narrondo erreka	8	2006-		18-30
	URO52800S	Saburutx zubia	7	1987-	1999-	18-30
	URO54100S	Kondekua	6	1987-		18-30
	URO55000S	Gorostiaga zubia	5	1987-	1999-	18-30
	URO55800S	Padurak	4	1987-		18-30
	URO57000S	F.E.V.E. zubia	3	1987-	1999-	>30
	URO57900S	N-634eko zubia	2	1987-		>30
	URO58700S	Zumaiako portua	1	1987-	1999-	>30
<b>ORIA</b>	ORI58600S	N-634 PK 4		1985-2001		<18
	ORI60200S	San Esteban zubia	5	1986-	1999-	<18
	ORI62400S	Aginagako lehenengo ontziralekuak	4	1986-	1999-	<18
	ORI64700S	Aginagako bigarren ontziralekuak	3	1986-	1999-	18-30
	ORI67200S	Ontziola (Atxega)	2	1986-	1999-	>30
	ORI68700S	Orio zubia	1	1986-	1999-	>30
	ORI70700S	Itsasoratze kai-muturra	0	2001-	2001-	>30
	ANI04800S	Añorga erreka (Infernu)	7	1987-		<18

**1. taula (Jarraipena).** Gipuzkoako estuarioen jarraipenean eta eskuragarri dauden datu-segidetan aztertzen diren lagintze-puntuak. Gehienezko gazitasunaren tartea adierazten da. Gaur egun klorofila neurtzen den lagintze-puntuak kolore grisez nabarmentzen dira.


Estuarioa	Lagintze-Puntua	Kokapena	Kodea	DENBORAZKO SEGIDA		GAZITASUNA (maximoa)
				Fisiko-Kimikoak	"a" klorofila	
URUMEA	URU38800R	Carabeleko zubia		1988-2000		<18
	URU40200R	Ergobiako zubia		1988-2000		<18
	URU41300S	Astigarragako bihurgunea	3	1987-		<18
	URU42300S	Pilar auzoko zubia	4	1987-	1999-	<18
	URU42800S	Martutene auzoko zubia	5	1987-		<18
	URU44000S	Txomin-Enea auzoko zubia	6	1987-	1999-	18-30
	URU44600S	Kuarteletako zubiak	7	1986-		18-30
	URU45300S	Egiako zubia	8	1987-	1999-	>30
	URU46600S	Burdinezko zubia	9	1987-	1999-	>30
	URU48200S	María Cristina zubia	10	1987-	1999-	>30
	URU49000S	Kursaaleko zubia	11	2001-	2001-	>30
OIA RTZUN	MOL00600S	Molinako erreka	9	1989-		18-30
	OIA12200S	Oreretako zubia - Oia rtzun ibaia	8	1989-		<18
	OIA13000S	Lezoko zubia - Oia rtzun ibaia	7	1989-		<18
	OIA14000S	Portuko barnealdea - Oia rtzun ibaia	6	1989-	1998-	>30
	OIA14500S	Lezoko kaia	5	1989-	1998-	>30
	OIA15000S	Molinako errekaaren ahoa	4	1989-	1998-	>30
	OIA15500S	Portuko erdialdea	3	1989-	1998-	>30
	OIA16700S	Itsasorako kanala	2	1989-	1998-	>30
	OIA16200S	Herrera kaia	1	1989-	1998-	>30
BIDASOA	END10200R	Endara errekaaren ahoa	1	1995-		<18
	BID00000R	Endarlazako zubia	2	1995-		<18
	BID04200S	Alunda-Lastaola bihurgunea (PK 81, C-131)	3	1992-	1999-	<18
	BID07600S	Behobiako zubia	4	1992-	1999-	<18
	BID10350S	Santiagoko zubia (Irun)	5	1992-	1999-	18-30
	BID13300S	Arrantzale-kofradia	6	2001-	2001-	>30

**1. taulan** ikus daitekeenez, *in situ* neurtzen diren aldagai fisiko-kimikoak (tenperatura, oxigenoa, pH, gazitasuna eta eroankortasuna), klorofila baino lagintze-puntu gehiagotan neurtzen dira, azken hau laborategian aztertu behar delarik.


Taula berean, lagintze-puntu bakoitzeko gazitasun-tartea adierazten da (denborazko segidan aurkitu den gehienezko balioan oinarritua). Honek, lagintze-puntu bakoitzean ibaiak itsasoarekiko duen eragina islatzen du.

Lagintze-puntuak bi izendapen dituzte: hizki eta zenbakiak erabiliz bata, Aldundiaren datu-basean erabiltzen dena; zenbaki bakar batek osatzen duen kode laburtua bestea, klorofilaren azterketetarako eta datu-prozesamendu batzutan erabiltzen dena.


Jarraian estuario bakoitzeko mapak irudikatuko dira, gaur egungo lagintze-puntuen kokapenarekin (**1. irudia-6. irudia**). Puntu urdinekin irudikatutako lagintze-puntutan, aldagai fisiko-kimikoak soilik neurtu dira. Hauetaz gain, 2017.ean klorofila datuak edukitzen direnetan berde kolorea erabili da.




1. irudia. Deba ibaiaren estuarioko eta Mijoa ibaiko uren lagintze-puntuak 2017.ean.




2. irudia. Urola ibaiaren estuarioko eta Narrondo erreka uren lagintze-puntuak 2017.ean.




3. irudia. Oria ibaiaren estuarioko eta Añorga errekaoren lagintze-puntuak 2017.ean.



4. irudia. Urumea ibaiaren estuarioko uren lagintze-puntuak 2017.ean.



5. irudia. Oiartzun ibaiaren estuarioko eta Molinero erreka-aren lagintze-puntuak 2017.ean.



6. irudia. Bidasoa ibaiaren estuarioko eta Endara erreka-aren lagintze-puntuak 2017.ean.



## 2.2 Uretako ingurune-aldagaiak

### 2.2.1 Ur-laginak hartzea eta aldagaiak *in situ* neurtzea

Aldundiko teknikariak hartzen dituzte klorofila azterketak egiteko ur-laginak. Aldi berean aldagai lagungarri batzuk (gazitasuna, temperatura, pH, e.a.) ere neurtzen dituzte *in situ* eta baita ingurumenaren egoera zehazteko garrantzia duen aldagai bat ere: disolbatutako oxigenoa. Aldagai guztiak ur-zutabearen azalaren azpiko geruzan neurtzen dira (Oiartzun ibaiaren estuarioan, baita beste sakonera batzutan ere).

Aldagai fisiko-kimikoen eta klorofilaren neurketak dauden lagintze-puntuen kokapena eta zenbatekoa aurreko atalean azaltzen da (**1. taula**). Klorofila azterketak egiteko laginketak 1999.ean hasi ziren estuario gehienetan (Oiartzunen 1998.az gero daude datuak). Lagintzearen maiztasuna aldatu egin da jarraipena hasi zenetik (**2. taula**). Gehienetan, urteko lauzpabost lagintze egin ziren 2005.era arte. Maiztasuna areagotu egin zen 2006.az gero, eta 6-7 lagintze egin ziren urteko estuario bakoitzean. Azkenik, 2010.az gero, klorofilaren lagintzea fitoplankton gehien ekoizten den garaira mugatu zen, baina gainerako aldagaietarako hileroko lagintze-maiztasuna mantendu da gutxi gorabehera.

**2. taula.** Klorofila eta aldagai fisiko-kimikoak aztertzeako, 1999.az gero eginiko lagintze-kanpainak.

URTEA	DEBA	UROLA	ORIA	URUMEA	OIARTZUN	BIDASOA
<b>1999</b>	1999.eko uztailak 16	1999.eko ekainak 18	1999.eko uztailak 23	1999.eko ekainak 25	1999.eko ekainak 11	1999.eko ekainak 25
	1999.eko abuztuak 25	1999.eko irailak 17	1999.eko irailak 10	1999.eko irailak 3	1999.eko abuztuak 13	1999.eko irailak 3
	1999.eko urriak 29	1999.eko urriak 22	1999.eko azaroak 19	1999.eko azaroak 5	1999.eko azaroak 12	1999.eko azaroak 5
<b>2000</b>	2000.eko urtarrilak 14	2000.eko urtarrilak 21	2000.eko otsailak 4	2000.eko urtarrilak 28	2000.eko otsailak 11	2000.eko urtarrilak 28
	2000.eko martxoak 31	2000.eko maiatzak 5	2000.eko apirilak 28	2000.eko apirilak 14	2000.eko apirilak 7	2000.eko apirilak 14
	2000.eko ekainak 16	2000.eko ekainak 9	2000.eko maiatzak 26	2000.eko ekainak 23	2000.eko ekainak 16	2000.eko ekainak 23
	2000.eko abuztuak 11	2000.eko uztailak 28	2000.eko uztailak 20	2000.eko abuztuak 4	2000.eko abuztuak 18	2000.eko abuztuak 4
	2000.eko irailak 22	2000.eko urriak 20	2000.eko irailak 29	2000.eko urriak 6	2000.eko urriak 27	2000.eko urriak 6
<b>2001</b>	2001.eko urtarrilak 19	2001.eko urtarrilak 12	2001.eko otsailak 2	2001.eko urtarrilak 26	2001.eko otsailak 9	2001.eko urtarrilak 26
	2001.eko martxoak 30	2001.eko martxoak 23	2001.eko apirilak 27	2001.eko apirilak 6	2001.eko maiatzak 10	2001.eko apirilak 6
	2001.eko ekainak 15	2001.eko ekainak 8	2001.eko ekainak 1	2001.eko maiatzak 25	2001.eko ekainak 27	2001.eko maiatzak 25
	2001.eko abuztuak 3	2001.eko abuztuak 17	2001.eko uztailak 27	2001.eko abuztuak 10	2001.eko abuztuak 24	2001.eko abuztuak 10
	2001.eko azaroak 9	2001.eko urriak 26	2001.eko azaroak 30	2001.eko azaroak 23	2001.eko urriak 19	2001.eko azaroak 16
<b>2002</b>	2002.eko otsailak 28	2002.eko otsailak 22	2002.eko otsailak 15	2002.eko otsailak 8	2002.eko otsailak 1	2002.eko otsailak 8
	2002.eko maiatzak 17	2002.eko maiatzak 9	2002.eko apirilak 19	2002.eko maiatzak 31	2002.eko apirilak 26	2002.eko maiatzak 24
	2002.eko abuztuak 16	2002.eko abuztuak 2	2002.eko uztailak 26	2002.eko abuztuak 30	2002.eko abuztuak 9	2002.eko abuztuak 23
	2002.eko urriak 25	2002.eko urriak 18	2002.eko azaroak 8	2002.eko urriak 31	2002.eko azaroak 15	2002.eko urriak 31
<b>2003</b>	2003.eko apirilak 8	2003.eko apirilak 25	2003.eko maiatzak 9	2003.eko maiatzak 16	2003.eko martxoak 28	2003.eko apirilak 14
	2003.eko maiatzak 23	2003.eko maiatzak 30	2003.eko ekainak 24	2003.eko ekainak 13	2003.eko ekainak 17	2003.eko ekainak 6
	2003.eko uztailak 17	2003.eko uztailak 24	2003.eko abuztuak 14	2003.eko abuztuak 8	2003.eko abuztuak 22	2003.eko abuztuak 1
	2003.eko urriak 3	2003.eko urriak 10	2003.eko urriak 17	2003.eko irailak 26	2003.eko azaroak 7	2003.eko urriak 24
<b>2004</b>	2004.eko otsailak 20	2004.eko otsailak 13	2004.eko otsailak 6	2004.eko otsailak 27	2004.eko maiatzak 21	2004.eko martxoak 4
	2004.eko apirilak 30	2004.eko apirilak 23	2004.eko apirilak 16	2004.eko maiatzak 14	2004.eko uztailak 23	2004.eko maiatzak 7
	2004.eko abuztuak 6	2004.eko uztailak 30	2004.eko abuztuak 13	2004.eko uztailak 16	2004.eko urriak 22	2004.eko abuztuak 20
	2004.eko azaroak 5	2004.eko urriak 15	2004.eko urriak 29	2004.eko abuztuak 27	2004.eko azaroak 26	2004.eko azaroak 12
<b>2005</b>	2005.eko otsailak 24	2005.eko martxoak 14	2005.eko martxoak 7	2005.eko otsailak 18	2005.eko martxoak 18	2005.eko apirilak 1
	2005.eko ekainak 3	2005.eko ekainak 17	2005.eko ekainak 10	2005.eko uztailak 1	2005.eko maiatzak 27	2005.eko ekainak 24
	2005.eko uztailak 8	2005.eko abuztuak 12	2005.eko uztailak 15	2005.eko abuztuak 26	2005.eko abuztuak 19	2005.eko irailak 2
	2005.eko irailak 8	2005.eko irailak 16	2005.eko irailak 29	2005.eko urriak 7	2005.eko irailak 23	2005.eko urriak 14
	2005.eko urriak 21	2005.eko azaroak 11	2005.eko azaroak 18	2005.eko abenduak 9	2005.eko abenduak 16	2005.eko azaroak 25



**2. taula (jarraipena).** Klorofila eta aldagai fisiko-kimikoak aztertzeko, 1999.az gero eginiko lagintze-kanpainak. Klorofila azterketak egiten ez diren lagintzeak kolore grisez adierazi dira.

URTEA	DEBA	UROLA	ORIA	URUMEA	OIARTZUN	BIDASOA
<b>2006</b>	2006.eko otsailak 3	2006.eko otsailak 24	2006.eko otsailak 10	2006.eko martxoak 10	2006.eko otsailak 17	2006.eko martxoak 3
	2006.eko martxoak 16	2006.eko martxoak 24	2006.eko martxoak 31	2006.eko apirilak 12	2006.eko apirilak 21	2006.eko apirilak 7
	2006.eko ekainak 16	2006.eko ekainak 23	2006.eko maiatzak 26	2006.eko ekainak 9	2006.eko maiatzak 19	2006.eko ekainak 2
	2006.eko abuztuak 4	2006.eko abuztuak 18	2006.eko ekainak 30	2006.eko irailak 1	2006.eko uztailak 14	2006.eko uztailak 7
	2006.eko irailak 18	2006.eko irailak 22	2006.eko irailak 7	2006.eko uztailak 28	2006.eko irailak 28	2006.eko abuztuak 25
	2006.eko azaroak 10	2006.eko azaroak 17	2006.eko azaroak 6	2006.eko urriak 6	2006.eko urriak 22	2006.eko urriak 9
			2006.eko abenduak 18		2006.eko abenduak 1	
<b>2007</b>	2007.eko urtarrilak 12	2007.eko urtarrilak 19	2007.eko urtarrilak 26	2007.eko otsailak 9	2007.eko martxoak 16	2007.eko otsailak 2
	2007.eko otsailak 16	2007.eko otsailak 23	2007.eko martxoak 2	2007.eko martxoak 23	2007.eko maiatzak 25	2007.eko martxoak 9
	2007.eko martxoak 30	2007.eko apirilak 13	2007.eko apirilak 2	2007.eko maiatzak 4	2007.eko uztailak 30	2007.eko apirilak 27
	2007.eko ekainak 1	2007.eko ekainak 15	2007.eko maiatzak 21	2007.eko uztailak 13	2007.eko abuztuak 31	2007.eko ekainak 8
	2007.eko uztailak 21	2007.eko abuztuak 3	2007.eko abuztuak 17	2007.eko irailak 7	2007.eko urriak 19	2007.eko abuztuak 10
	2007.eko abuztuak 24	2007.eko irailak 14	2007.eko azaroak 9	2007.eko urriak 4	2007.eko abenduak 14	2007.eko urriak 11
	2007.eko azaroak 16	2007.eko abenduak 7	2007.eko azaroak 30		2007.eko azaroak 26	
<b>2008</b>	2008.eko otsailak 28	2008.eko martxoak 7	2008.eko martxoak 13	2008.eko apirilak 3	2008.eko otsailak 15	2008.eko otsailak 21
	2008.eko apirilak 17	2008.eko apirilak 24	2008.eko maiatzak 15	2008.eko maiatzak 2	2008.eko apirilak 11	2008.eko martxoak 28
	2008.eko ekainak 5	2008.eko maiatzak 29	2008.eko ekainak 13	2008.eko uztailak 17	2008.eko ekainak 20	2008.eko maiatzak 22
	2008.eko uztailak 23	2008.eko uztailak 29	2008.eko abuztuak 7	2008.eko abuztuak 28	2008.eko abuztuak 21	2008.eko uztailak 10
	2008.eko irailak 3	2008.eko irailak 11	2008.eko irailak 18	2008.eko urriak 2	2008.eko urriak 16	2008.eko abuztuak 13
	2008.eko urriak 9	2008.eko urriak 23	2008.eko urriak 31	2008.eko azaroak 13	2008.eko abenduak 18	2008.eko irailak 25
	2008.eko azaroak 20	2008.eko azaroak 27	2008.eko abenduak 11		2008.eko azaroak 6	
<b>2009</b>	2009.eko urtarrilak 12	2009.eko urtarrilak 29	2009.eko otsailak 12	2009.eko urtarrilak 21	2009.eko apirilak 7	2009.eko urtarrilak 15
	2009.eko otsailak 5	2009.eko martxoak 12	2009.eko martxoak 17	2009.eko otsailak 26	2009.eko maiatzak 28	2009.eko otsailak 19
	2009.eko martxoak 9	2009.eko apirilak 23	2009.eko apirilak 9	2009.eko apirilak 2	2009.eko uztailak 17	2009.eko martxoak 25
	2009.eko apirilak 16	2009.eko ekainak 17	2009.eko ekainak 11	2009.eko maiatzak 20		2009.eko maiatzak 14
	2009.eko ekainak 4	2009.eko abuztuak 6	2009.eko abuztuak 13	2009.eko abuztuak 27		2009.eko ekainak 9
	2009.eko uztailak 23	2009.eko irailak 10	2009.eko irailak 16	2009.eko irailak 30		2009.eko irailak 24
	2009.eko irailak 3	2009.eko urriak 15	2009.eko urriak 22	2009.eko azaroak 5		2009.eko urriak 28
	2009.eko urriak 8		2009.eko azaroak 26			
	2009.eko azaroak 12					
<b>2010</b>	2010.eko otsailak 4	2010.eko urtarrilak 28	2010.eko otsailak 12	2010.eko urtarrilak 15	2010.eko apirilak 23	2010.eko otsailak 18
	2010.eko martxoak 11	2010.eko martxoak 4	2010.eko martxoak 17	2010.eko otsailak 25	2010.eko ekainak 17	2010.eko martxoak 25
	2010.eko apirilak 8	2010.eko apirilak 15	2010.eko apirilak 29	2010.eko martxoak 31	2010.eko uztailak 29	2010.eko maiatzak 6
	2010.eko maiatzak 13	2010.eko maiatzak 27	2010.eko ekainak 3	2010.eko maiatzak 20	2010.eko irailak 23	2010.eko ekainak 10
	2010.eko uztailak 15	2010.eko ekainak 24	2010.eko uztailak 22	2010.eko uztailak 8	2010.eko urriak 28	2010.eko abuztuak 5
	2010.eko abuztuak 12	2010.eko abuztuak 19	2010.eko abuztuak 26	2010.eko irailak 2	2010.eko abenduak 16	2010.eko irailak 9
	2010.eko irailak 16	2010.eko irailak 30	2010.eko urriak 7	2010.eko urriak 21		2010.eko urriak 15
	2010.eko azaroak 4	2010.eko azaroak 18	2010.eko azaroak 12	2010.eko abenduak 2		2010.eko azaroak 25
	2010.eko abenduak 22					
<b>2011</b>	2011.eko otsailak 17	2011.eko urtarrilak 19	2011.eko urtarrilak 27	2011.eko otsailak 3	2011.eko martxoak 10	2011.eko otsailak 10
	2011.eko martxoak 31	2011.eko otsailak 24	2011.eko martxoak 3	2011.eko martxoak 24	2011.eko apirilak 29	2011.eko martxoak 17
	2011.eko maiatzak 19	2011.eko apirilak 15	2011.eko apirilak 7	2011.eko maiatzak 12	2011.eko ekainak 16	2011.eko maiatzak 5
	2011.eko uztailak 13	2011.eko maiatzak 26	2011.eko ekainak 2	2011.eko uztailak 7	2011.eko irailak 1	2011.eko ekainak 9
	2011.eko abuztuak 17	2011.eko uztailak 21	2011.eko abuztuak 4	2011.eko abuztuak 11	2011.eko azaroak 3	2011.eko uztailak 28
	2011.eko irailak 29	2011.eko abuztuak 25	2011.eko irailak 7	2011.eko irailak 22		2011.eko irailak 15
	2011.eko urriak 6	2011.eko urriak 13	2011.eko urriak 27		2011.eko urriak 19	
	2011.eko azaroak 17	2011.eko azaroak 24	2011.eko abenduak 15			2011.eko abenduak 1
<b>2012</b>	2012.eko urtarrilak 26	2012.eko otsailak 9	2012.eko otsailak 2	2012.eko urtarrilak 18	2012.eko urtarrilak 12	2012.eko otsailak 29
	2012.eko martxoak 7	2012.eko martxoak 14	2012.eko martxoak 21	2012.eko otsailak 16	2012.eko otsailak 22	2012.eko apirilak 10
	2012.eko apirilak 18	2012.eko apirilak 23	2012.eko maiatzak 2	2012.eko martxoak 28	2012.eko apirilak 3	2012.eko maiatzak 22
	29 de mayo 2012	2012.eko ekainak 5	2012.eko ekainak 12	2012.eko maiatzak 7	2012.eko maiatzak 15	2012.eko ekainak 26
	2012.eko uztailak 3	2012.eko uztailak 24	2012.eko uztailak 30	2012.eko ekainak 19	2012.eko uztailak 9	2012.eko abuztuak 27
	2012.eko irailak 4	2012.eko irailak 11	2012.eko irailak 18	2012.eko abuztuak 13	2012.eko abuztuak 20	2012.eko urriak 3
	2012.eko urriak 16	2012.eko urriak 24	2012.eko urriak 29	2012.eko irailak 25	2012.eko urriak 9	2012.eko azaroak 19
	2012.eko azaroak 27	2012.eko abenduak 4	2012.eko abenduak 11	2012.eko azaroak 6	2012.eko azaroak 13	
			2012.eko abenduak 18			

**2. taula (jarraipena).** Klorofila eta aldagai fisiko-kimikoak aztertzeko, 1999.az gero eginiko lagintze-kanpainak. Klorofila azterketak egiten ez diren lagintzeak kolore grisez adierazi dira. (\*) Oso eguraldi euritsua, uholdeak (kasuren batean ezin izan zen laginik hartu).

URTEA	DEBA	UROLA	ORIA	URUMEA	OIARTZUN	BIDASOA
2013	2013.eko urtarrilak 23	2013.eko urtarrilak 28	2013.eko otsailak 4	2013.eko otsailak 18	2013.eko urtarrilak 14	2013.eko urtarrilak 9
	2013.eko martxoak 12	2013.eko martxoak 18	2013.eko martxoak 25	2013.eko apirilak 2	2013.eko otsailak 26	2013.eko martxoak 5
	2013.eko apirilak 23	2013.eko apirilak 29	2013.eko maiatzak 6	2013.eko maiatzak 14	2013.eko apirilak 16	2013.eko apirilak 8
	2013.eko ekainak 4	2013.eko ekainak 10 (*)	2013.eko ekainak 17	2013.eko ekainak 24	2013.eko maiatzak 20	2013.eko maiatzak 27
	2013.eko uztailak 22	2013.eko uztailak 1	2013.eko abuztuak 12	2013.eko abuztuak 19	2013.eko uztailak 9	2013.eko uztailak 15
	2013.eko irailak 10	2013.eko abuztuak 5	2013.eko irailak 24	2013.eko irailak 30	2013.eko abuztuak 26	2013.eko irailak 4
	2013.eko urriak 21	2013.eko irailak 16	2013.eko azaroak 11	2013.eko azaroak 18	2013.eko urriak 7	2013.eko urriak 14
	2013.eko abenduak 10	2013.eko urriak 28	2013.eko abenduak 30		2013.eko azaroak 26	2013.eko abenduak 2
2014	2014.eko urtarrilak 27	2014.eko otsailak 3	2014.eko otsailak 10	2014.eko urtarrilak 7	2014.eko urtarrilak 13	2014.eko urtarrilak 21
	2014.eko martxoak 17	2014.eko martxoak 24	2014.eko martxoak 31	2014.eko otsailak 17	2014.eko otsailak 25	2014.eko martxoak 10
	2014.eko maiatzak 12	2014.eko maiatzak 5	2014.eko maiatzak 19	2014.eko apirilak 7	2014.eko apirilak 15	2014.eko apirilak 28
	2014.eko ekainak 17	2014.eko ekainak 23	2014.eko ekainak 30	2014.eko maiatzak 27	2014.eko ekainak 3	2014.eko ekainak 9
	2014.eko abuztuak 4	2014.eko abuztuak 11	2014.eko abuztuak 18	2014.eko uztailak 7	2014.eko uztailak 14	2014.eko uztailak 28
	2014.eko irailak 15	2014.eko irailak 22	2014.eko irailak 29	2014.eko abuztuak 25	2014.eko irailak 8	2014.eko irailak 1
	2014.eko urriak 28	2014.eko azaroak 4	2014.eko azaroak 11	2014.eko urriak 6	2014.eko urriak 14	2014.eko urriak 21
	2014.eko abenduak 9	2014.eko abenduak 16	2014.eko abenduak 22	2014.eko azaroak 18	2014.eko azaroak 25	2014.eko abenduak 2
2015	2015.eko urtarrilak 27	2015.eko otsailak 3	2015.eko otsailak 10	2015.eko urtarrilak 5	2015.eko urtarrilak 12	2015.eko urtarrilak 21
	2015.eko martxoak 16	2015.eko martxoak 24	2015.eko martxoak 31	2015.eko otsailak 24	2015.eko otsailak 17	2015.eko martxoak 10
	2015.eko apirilak 28	2015.eko maiatzak 5	2015.eko maiatzak 12	2015.eko apirilak 7	2015.eko apirilak 7	2015.eko apirilak 14
	2015.eko ekainak 9	2015.eko ekainak 16	2015.eko ekainak 23	2015.eko maiatzak 19	2015.eko maiatzak 26	2015.eko ekainak 2
	2015.eko uztailak 21	2015.eko uztailak 28	2015.eko abuztuak 4	2015.eko ekainak 30	2015.eko uztailak 7	2015.eko uztailak 15
	2015.eko irailak 8	2015.eko irailak 15	2015.eko irailak 22	2015.eko abuztuak 11	2015.eko abuztuak 18	2015.eko irailak 1
	2015.eko urriak 13	2015.eko urriak 27	2015.eko azaroak 3	2015.eko irailak 29	2015.eko urriak 20	2015.eko urriak 6
	2015.eko abenduak 1	2015.eko abenduak 10	2015.eko abenduak 15	2015.eko azaroak 10	2015.eko azaroak 17	2015.eko azaroak 24
2016	2016.eko urtarrilak 11	2016.eko urtarrilak 19	2016.eko urtarrilak 26	2016.eko otsailak 2	2016.eko otsailak 9	2016.eko urtarrilak 4
	2016.eko otsailak 23	2016.eko martxoak 1	2016.eko martxoak 8	2016.eko martxoak 15	2016.eko martxoak 22	2016.eko otsailak 16
	2016.eko apirilak 13	2016.eko apirilak 18	2016.eko apirilak 26	2016.eko maiatzak 4	2016.eko maiatzak 10	2016.eko apirilak 5
	2016.eko maiatzak 24	2016.eko maiatzak 31	2016.eko ekainak 7	2016.eko ekainak 14	2016.eko ekainak 28	2016.eko maiatzak 17
	2016.eko uztailak 5	2016.eko uztailak 12	2016.eko uztailak 26	2016.eko abuztuak 2	2016.eko abuztuak 23	2016.eko ekainak 21
	2016.eko abuztuak 16	2016.eko abuztuak 30	2016.eko irailak 6	2016.eko irailak 20	2016.eko irailak 27	2016.eko abuztuak 9
	2016.eko urriaren 11	2016.eko urriak 25	2016.eko urriak 31	2016.eko azaroak 8	2016.eko azaroak 16	2016.eko urriak 4
	2016.eko urriaren 18	2016.eko abenduak 1	2016.eko abenduak 13	2016.eko abenduak 19	2016.eko abenduak 27	2016.eko azaroak 22
2017	2017.eko urtarrilak 10	2017.eko urtarrilak 18	2017.eko urtarrilak 24	2017.eko urtarrilak 31	2017.eko otsailak 7	2017.eko urtarrilak 3
	2017.eko otsailak 21	2017.eko otsailak 28	2017.eko martxoak 7	2017.eko martxoak 14	2017.eko martxoak 21	2017.eko otsailak 14
	2017.eko apirilak 4	2017.eko apirilak 11	2017.eko apirilak 18	2017.eko apirilak 25	2017.eko maiatzak 3	2017.eko martxoak 27
	2017.eko maiatzak 23	2017.eko maiatzak 30	2017.eko ekainak 6	2017.eko ekainak 13	2017.eko ekainak 20	2017.eko maiatzak 9
	2017.eko uztailak 4	2017.eko uztailak 11	2017.eko uztailak 26	2017.eko abuztuak 1	2017.eko abuztuak 21	2017.eko ekainak 27
	2017.eko abuztuak 28	2017.eko abuztuak 29	2017.eko irailak 5	2017.eko irailak 12	2017.eko irailak 18	2017.eko abuztuak 22
	2017.eko urriak 3	2017.eko urriak 10	2017.eko urriak 17	2017.eko urriak 24	2017.eko azaroak 29	2017.eko irailak 26
	2017.eko azaroak 15	2017.eko azaroak 22	2017.eko abenduak 12	2017.eko abenduak 19	2017.eko abenduak 26	2017.eko azaroak 8

Klorofila-azterketetarako ur-laginak azaleko ur-geruzaren azpitik hartzen dira (azaletik 0,5 m-ra gutxi gorabehera) mota desberdinetako ur gaineko materialek, baina ur-zutabearen ezaugarrien adierazgarri ez direnak (landare-hondakinak, makroalgak, e.a.), lagina kutsatzea ekiditeko. Material hauek azterketan eragin dezaketenez, ur uholde baldintzatan lagintzea ere ekiditen da (adibidez, 2013.eko ekainan Urolan. **2. taula**).

Laginak litro bateko plastikozko ontzi opakueta jasotzen dira (argiak klorofilaren kontzentrazioan eragin lezake). Lagintze batetik bestera, ontziak garbitu egiten dira.

Klorofila azterketak egiteko laginak ilunpetan gordetzen dira laborategira garraiatzeko. Azterketak laginak hartu eta berehala egiten dira (bizpahiru orduren buruan). Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek eramaten dituzte laginak AZTI-ra. Behin AZTI-n, laginak berehala aztertzen dira.

Urtarrila eta abendua bitartean 46 lagintze-puntutan neurtu dira aldagai fisiko-kimikoak 2017.ean. Klorofila azterketetarako laginei dagokienez, 19 lagintze-puntutan hartu dira maiatza hasiera eta urria bukaera bitartean. Estuario bakoitzeko, klorofilaren lagintze-kanpaina kopurua 4-koa izan da (**2. taula**). Guztira, 76 lagin aztertu dira.

### 2.2.2 Klorofila-kontzentrazioaren azterketak

“A” klorofilaren kontzentrazioaren azterketak ingurune hauetan erabiltzen diren ohiko metodologiengatik egiten dira (Strickland eta Parsons, 1972). Lehendabizi, ur-laginak iragazi egiten dira eta iragazitako bolumena idatzita gordetzen da (**7. irudia**). Iragazitako bolumena aldatu egiten da uretan dagoen detritu eta klorofila kopuruaren arabera. Garrantzitsua da iragazkia gutxienez kolore apur bat antzemateko nahikoa ur iragaztea. Estuarioen kanpoaldean litro inguruko bolumenak edo handiagoak iragazi behar izaten dira; estuarioen barne zatietan, aldiz, iragazten diren bolumenak txikiagoak izaten dira. Whatman GF/C iragazkiak erabiltzen dira. Iragazki hauek 1-1,5  $\mu\text{m}$  diametro duten zatikiak atxikitzen dituzte. Euskal itsasertzeko estuarioetan klorofila-kontzentrazioari ekarpen gehien egiten dioten zelulak handiagoak dira, 2-20  $\mu\text{m}$  diametrokoak (Orive et al., 2004). Beraz, iragazkietan atxikita gelditzen dira.

Atxikitako materiala duten iragazkiak 10 ml azetona (%90eko kontzentrazioan) duten saio-hodietan sartzen dira. “A” klorofilaren erauzketa on bat bermatzeko, 24-48 orduz uzten dira. Denbora horretan, hodiak ilunpetan eta hozkailuan mantentzen dira. Jarraian, nahasketa on bat lortzeko hodiak irabiatu, eta erauzkinak zentrifugatu egiten dira esekiduran dagoen materiala baztertu eta erauzkin garbi bat lortzeko.

Azkenik, zentrifugatutako erauzkinaren xurgatzea uhin luzera ezberdinetan neurtzen da Perkin-Elmer 551S espektrofotometro baten bidez. Irakurketa horiek, iragazitako uraren bolumena eta erauzkinaren bolumena kontuan hartuta, formula erraz bat erabiltzen da klorofilaren kontzentrazioa zenbatesteko (SCOR-UNESCO, 1980).



**7. irudia.** Klorofilaren iragazketa laborategian.

### 2.2.3 Datuak egiaztatu eta gordetzea

Behin klorofilaren kontzentrazioak aztertuta, datuak Excel taulatan sartzen dira, *in situ* neurtutako aldagai fisiko-kimikoekin batera.

Oxigenoaren datuak, gainera, banaka lantzen dira, txostenaren zati garrantzitsu baterako erabiltzen baitira. Datu hauek, beste Excel taula batzutan sartzen dira.

Behin datuak tauletan sartuta, egiaztatu egiten dira ezohiko balioak edo balio okerrak hautemateko. Balio hauek ez dira kontuan hartzen taula estatistikoetan eta irudietan. Edonola ere, jatorrizko balioak hartu ziren moduan ere gordetzen dira.

Zenbait kasutan datu batzuen zuzenketa egin behar izan da, adibidez, 2011. urtean zelaian neurtutako oxigenoaren kasuan. Aurreko txosten batetan adierazi bezala (Revilla eta Muxika, 2012), 2011.ean kontzentrazioak azken urteetako batezbestekoak baino baxuagoak izan ziren. Beranduago, hau zundaren kalibraketan izandako akats bati zegokiola aurkitu zen, ez baitzen uraren gazitasuna kontuan hartu urte horretako neurketetan.

Temperatura, gazitasun eta oxigenoaren asetasun-mailaren datuak zuzenak zirela onartu zen 2011. urteko oxigenoaren datuak zuzentzerako orduan. Aldiz, disolbatutako oxigenoaren kontzentrazio absolutuaren datuak ez ziren zuzenak izango, zegokien konpentsazio edo zuzenketa egin gabe erdietsi zirelako. Disolbatutako oxigenoaren kontzentrazioaren balioak berreskuratzeke, WEISS formula (Weiss, 1970) erabili zen.

Formula honek, oxigenoaren kontzentrazioa, temperatura eta gazitasuna oinarri harturik, oxigenoaren asetasun-maila ematen du. Kasu honetarako, alderantziz erabili zen formula: temperatura, gazitasuna eta oxigenoaren asetasun-maila harturik, disolbatutako oxigenoaren kontzentrazioa neurtu zen (Revilla et al., 2013).

## 2.2.4 Uraren kalitatearen zenbatespena klorofilaren arabera

Aurreko urteko txostenean bezala, “a” klorofilaren kontzentrazioen 90. pertzentila erabili da biomasa fitoplanktonikoaren adierazle bezala. Aldagai honek normalean banaketa normala ez duenez, batezbesteko aritmetikoa baino estatistiko gomendagarriagoa da.

Ondoren, lagintze-puntu bakoitzeko biomasaren zenbatekoa (90. pertzentilaren balioa), presio antropikorik ez edo gutxi dagoenean behar lukeen gehienezko balioarekin alderatu da (atalase-balioa). Kalitatea balioztatzeko erabili diren atalaseak gazitasun-tarte bakoitzerako berariazkoak dira eta **3. taulan** adierazi dira.

**3. taula.** Estuarioaren tartearen gazitasunaren arabera “a” klorofilaren kontzentrazioarako kalitate helburuak. Sei urtetan neurtutako “a” klorofilaren kontzentrazioen balioen 90. pertzentila erabiltzen da: datu hauek hiruhilero hartzen dira negu, udaberri, udara eta udazkeneko baldintzak adierazteko ([http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000334/es/contenidos/informacion/protocolos\\_estado\\_aguas/es\\_def/index.shtml](http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000334/es/contenidos/informacion/protocolos_estado_aguas/es_def/index.shtml)). Txosten honetan metrika hau apirila eta urria bitartean jasotako klorofilaren neurketekin erabiltzen da.

Tartea	Euhalinaoa	Polihalinoia	Mesohalinoia	Oligohalinoia
90. pertzentila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )	< 3,90	< 6,60	< 10,20	< 13,20
Gazitasuna (PSU)	30,1-34,4	18,1-30,0	5,1-18,0	0,5-5,0

Gazitasunaren arabera tartearak (datu-serie historikoen mediana, 50. pertzentila).

Europar Batasuneko hainbat estatuk, Europako Uraren Arteztaraua betetzeko, klorofilaren 90. pertzentilean oinarritutako adierazleak darabilte kalitate ekologikoa zenbatesteko bere metodoetan. Adierazle horiek fitoplanktonaren loratzeak gerta daitezkeen urtarorako zenbatesten dira, eta denbora-tarte zabal bateko datuak erabilita (normalean 5 edo 6 urte) laginaren neurria handitu asmoz eta, baita ere, denboraldi laburreko aldaketa naturalen efektua aukeratzeko (adibidez, lehorte edo eurite indartsuen urte bat).

AZTI-ko ikertzaileek egindako eutrofizazioari buruzko aurreko azterketatan horrelako adierazleak erabili izan dira (Borja et al., 2009; Revilla et al., 2010; 2011c; Garmendia et al., 2012). Izan ere, Uraren Arteztaraua betetzeko finkatutako kalitate-helburua (hau da, egoera ekologiko “Ona” eta

“Neurritzkoa”ren arteko muga) ikerketa horietan oinarritu da. Estuarioetarako, helburu hau, duela urte gutxi arte, ur euhalinoetan  $8 \mu\text{g l}^{-1}$  eta gainerakoetan  $12 \mu\text{g l}^{-1}$  ez gainditzea zen (BOE, 2013).

Txosten honetan, estuario ingurunetarako gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dauden irizpideak jarraitu dira, hau da, Uraren Arteztarauko terminologian “Trantsizio urak” deitzen direnenak (**3. taula**). Irizpide hauek irailaren 11-ko 817/2015 Errege-Dekretuan agertzen dira, non azaleko uren jarraipen eta ebaluaketen irizpideak eta ingurumen-kalitate arauak ezartzen diren (BOE, 2015). Dekretu honetan SPTT-2 indizea (“Spanish Phytoplankton Tool Transitional”, 2 bertsioa) agertzen da, eta hau da, hain zuzen, Kantauri Ekialdeko Demarkaziorako Plan Hidrologikoaren azken berrikustea jarraituz, Euskal Autonomi Erkidegoko trantsizio eta kostaldeko uretan erabili behar dena (URA, 2015; BOE, 2016). SPTT-2 indizeak, Trantsizio-uren fitoplanktonaren ebaluaketarako 2013.eko Errege-Dekretuan aipatzen ziren irizpideekin konparatuz, gazitasun-tarte gehiagotarako kalitate-helburuak zehazten ditu (lau tarte, biren orde) eta zorrotzagoak dira gazitasun gehiagoko uretan (euhalinoak eta polihalinoak).

“A” klorofila datuak erabiltzen dituen metrika baten bitartez fitoplanktonaren egoeraren ebaluaketarako metodologia ondorengo helbidean deskribatzen da xehetasun handiz: [http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-](http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000334/es/contenidos/informacion/protocolos_estado_aguas/es_def/index.shtml)

000334/es/contenidos/informacion/protocolos\_estado\_aguas/es\_def/index.shtml. Aipaturiko metri-  
kak, zelulen kopuruen datuak erabiltzen dituen beste batekin batera, SPTT-2 indizean parte hartzen du.

Foru Aldundiko datu seriearekin metrika erabili aurretik, klorofilaren urtaroko aldakortasunaren azterketa egin da (ikus 3.1.2 atala). Honen helburua fitoplanktonaren hazkuntza garaia zehaztea izan da. Lagintze-puntu bakoitzerako grafiko bat egin da, urteko hilabete bakoitzean, denbora-segida osoan neurtu diren klorofila balioak adierazten dituen.

Urteroko zikloaren azterketari esker, Gipuzkoako estuarioetan fitoplanktonaren hazkuntza garaia hilabeterik epelenei loturik dagoela zehaztu ahal izan da. Gainera, urtarrila eta abenduan hartu diren datuen zenbatekoa urteko gainerako hilabeteetan hartu direnena baino askoz txikiagoa izan da. Hau kontuan hartuta, 90. pertzentilean eman litezkeen aldaketak lagintze-estrategiari loturik egotea ahal den neurrian ekiditeko, apirila eta urria bitartera mugatu da datu-seriea kalitate-adierazlea zenbatesteko garaian.

## 2.2.5 Isurien adierazle diren mantenugaiak: amonioa eta fosfatoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ingurumen eta Nekazal Laborategian ([www.fraisoro.net](http://www.fraisoro.net)) aztertzen diren uretako aldagai desberdinen datuak ematen ditu. Datu-base honen ezaugarri orokorrak Revilla et al. (2011b) lanean azaltzen dira. Bertan, besteak beste, amonioaren kontzentrazioa ( $\text{NH}_4$ ) eta ortofosfatoarena ( $\text{PO}_4$ ), AMONI eta PDIS bezala azaltzen dira, hurrenez hurren.

Aldagai hauek estuarioetako prozesu biologikoetan duten eraginagatik hartu dira kontuan txosten honetan. Aipatutako mantenugaiak, kontzentrazio altuak dituztenean, hondakin-uren isurien adierazle dira. Gainera, landare-espezie oportunisten (makroalgak eta fitoplanktona) hazkuntza bizkortu dezaketen nitrogeno- eta fosforo-iturri dira.

### *Unitateen transformazioa eta kuantifikazio-mugaren azpiko balioak*

Aldundiaren datu-basean mantenugaiak  $\text{mg l}^{-1}$  unitatean adierazten dira. Txostenean erabiltzen den unitatea, berriz,  $\mu\text{M}$  da. Gramotatik moletara transformatzeko bihurketa-faktoreak 18 (amonioa) eta 95 (fosfatoa) dira. Adibidez, amonio-kontzentrazioa  $0,5 \text{ mg l}^{-1}$  bada, lehendabizi 1000-z biderkatzen da ( $\mu\text{g l}^{-1}$  unitatetara pasatzeko) eta, ondoren, zati 18 egiten da, amonioaren kontzentrazio molarra zenbatesteko, adibide honetan  $27,8 \mu\text{M}$  izango litzakeena.

Aurretik “<” ikurra duten datuak daude. Honek, kuantifikazio mugaren azpitik daudela esan nahi du. 60/2011 Errege-Dekretuko V Eranskinak (BOE, 2011) dioenari jarraiki, kasu hauetan datua kuantifikazio-mugaren erdiak ordezkatu dezake. Adibidez,  $<0,03 \text{ mg l}^{-1}$  balioa agertzen denean, bere benetako balioa  $0,015 \text{ mg l}^{-1}$  dela onartu daiteke. Honela, neurketa asko baztertzea ekiditen da, zeinak erabilgarriak izan baitaitezkeen denboran zehar kontzentrazioetan eman diren aldaketak aztertzeko.

Badira erregistroak non fosfatoaren kuantifikazio-muga oso handia baiten. Hau, datuak sartzean gertatutako akatsei zor lekiokie. Ingurumen eta Nekazal Laborategian aholkua eskatuta, honela azaltzen ziren kuantifikazio-mugak ez erabiltzea erabaki zen:  $<0,1 \text{ mg l}^{-1}$  ( $1,1 \mu\text{M}$ );  $<0,25 \text{ mg l}^{-1}$  ( $2,6 \mu\text{M}$ );  $<0,3 \text{ mg l}^{-1}$  ( $3,2 \mu\text{M}$ ); edo  $<0,924 \text{ mg l}^{-1}$  ( $9,73 \mu\text{M}$ ). Dena den, fosfatoari dagokionez, ezohikoak izan dira kasu horiek eta lehenengo urteetako erregistroetan eman dira batez ere.

Fosfatoarentzat, datu-basean agertzen diren kuantifikazio-muga zuzenak honakoak dira:  $0,03 \text{ mg l}^{-1}$  ( $0,32 \mu\text{M}$ ) eta  $0,05 \text{ mg l}^{-1}$  ( $0,53 \mu\text{M}$ ). Horien azpitik dauden mugak ere onartuko dira.

Amonioarentzat, datu-basean kuantifikazio-muga bezala azaltzen diren balio guztiak onartu dira. Hauek dira:  $0,01 \text{ mg l}^{-1}$  ( $0,56 \mu\text{M}$ ),  $0,03 \text{ mg l}^{-1}$  ( $1,67 \mu\text{M}$ ) eta  $0,05 \text{ mg l}^{-1}$  ( $2,78 \mu\text{M}$ ).

## Datuak egiaztatzea

Mantenugaien datuak banaka berrikusten dira ezohiko balioak hautemateko. *A priori* egon behar ez lukeen lekuan amonio edo fosfato kontzentrazioen muturreko balioen bat aurkitzen bada (adibidez, isuri garrantzitsuren baten berririk ez dagoen estuario baten itsasaldeko tartean), balio hori lagina kutsaturik egoteari edo datu-baseko oker bati zor lekiok.

Ezohiko balioak hautemateko, luzaroko beste segida batekoekin alderatu dira datuak, *Trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea* (hemendik aurrera *Sarea*) azterlanekoekin, hain zuzen ere. *Sarea* Eusko Jaurlaritzak jarri zuen habian 1994.ean eta Uraren Euskal Agentziak kudeatzen du gaur egun.

*Sarea* azterlaneko informazioa hemendik jaitsi daiteke: [http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003/eu/contenidos/informacion/calidad\\_aguas/eu\\_doc/redes.html](http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003/eu/contenidos/informacion/calidad_aguas/eu_doc/redes.html).

Bizkaia eta Gipuzkoako 12 estuariotan 1994. eta 2010. bitartean *Sarea* azterlanean jasotako datuen maximo historikoak **4. taulan** laburbildu dira. Aldundiko datu-baseko balioen batek *Sareako* maximo bat gainditzen badu, zalantzazkotzat jotzen da eta baztertu ala ez hausnartzen da. Dena den, oso gutxitan ezabatu behar izan dira datuak. Amonioaren kasuan, Molinao errekan (Oiartzun) ordena horretako balioak, eta baita handiagoak ere, neurtu ziren neurketen lehenengo urteetan, ziur aski hondakin-uren isuriei loturik egongo zirenak eta, beraz, ezabatu ez direnak.

Estuarioetan, uraren baldintza fisiko-kimikoak gazitasunari loturik dauden aldaketen eraginpean egoten dira. Horregatik, gazitasunaren balio maximotik abiatuz, hiru tarte bereiztu dira (17,5, 30,0 eta 35,4 PSU). Gazitasunaren balio hauek ibaiaren eta itsasoaren eragin ezberdina adierazten dute.

**4. taula.** Gazitasunaren, mantenugaien eta uhertasunaren balio maximoak, Euskal Autonomi Erkidegoko estuarioetan 1994. eta 2010. bitartean. Datuak *Sarea* azterlanetik hartu dira (Uraren Euskal Agentzia).

ESTUARIOKO TARTEA	Gazitasuna (PSU)	Amonioa ( $\mu\text{M}$ )	Nitratoa ( $\mu\text{M}$ )	Nitritoa ( $\mu\text{M}$ )	Fosfatoa ( $\mu\text{M}$ )	Uhertasuna (NTU)
<18 PSU (goiko tartea)	17,5	690	300	122	42	236
18-30 PSU (erdiko tartea)	30,0	778	235	35	18	189
>30 PSU (beheko tartea)	35,4	800	230	92	40	137

Gehienezko gazitasuna 17,5 PSU den tartea ibaiaren eragin handiena jasaten duela onartu daiteke, gehienez 30,0 PSU dituen nahaste-prozesuak ematen diren tartea dela eta 35,4 PSU



duenak itsasoaren eragin handia jasaten duela. Oro har, tarte hauek estuarioaren goiko tarte, erdikoa eta behekoa hartzen dituzte, hurrenez hurren.

*Sarean* amonioaren maximo historikoak (~700-800  $\mu\text{M}$ ) oso antzekoak dira hiru gazitasun tarteetan, **4. taulan** azaltzen denez. Honek, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) estuarioetako eremu desberdinetan hondakin-uren isuriak egon direla adierazten du.

### *Datuen interpretazioa gaur egungo testuinguruan*

Azken urteetako datuak beste informazio iturriekin alderatzeko, *Sareako* datuak erabili dira berriz ere, honetarako 2009. urteko datuak bakarrik erabiliz. Balio maximoak **5. taulan** azaltzen dira. Honetarako ere, gazitasunaren arabera sailkatu dira datuak. Maximo hauek, berriagoak, aurreko garaietakoak baino askoz baxuagoak dira (ikus **4. taula**) eta saneamendu sistema eraginkorragoak dituzten estuarioen bereizgarritzat har daitezke.

**5. taula.** Mantenugaien eta uhertasunaren balio maximoak, Euskal Autonomi Erkidegoko estuarioetan 2009.ean. Datuak *Sarea* azterlanetik hartu dira (Uraren Euskal Agentzia).

ESTUARIOKO TARTEA	Amonioa ( $\mu\text{M}$ )	Nitratoa ( $\mu\text{M}$ )	Nitritoa ( $\mu\text{M}$ )	Fosfatoa ( $\mu\text{M}$ )	Orotariko N ( $\mu\text{M}$ )	Orotariko P ( $\mu\text{M}$ )	Uhertasuna (NTU)
<18 PSU (goiko tarte)	12	74	3,3	4,6	154	7,1	64
18-30 PSU (erdiko tarte)	14	45	2,0	1,4	100	2,6	58
>30 PSU (beheko tarte)	19	27	0,7	1,4	79	2,5	62

Nitratoaren, nitritoaren eta orotariko nitrogenoaren 2009.eko maximoek, aldakuntza espazialari dagokionez, eredu bat jarraitzen dute eta estuarioan behera egin ahala, gazitasuna handituz doan heinean, baxuagoak dira (**5. taula**). Hau da espero daiteken aldakuntza eredu, ibaietako urak, berez, mantenugaietan aberatsagoak baitira itsasokoak baino.

Hala ere, gazitasuna handitu ahala kontzentrazioa gutxitzeko eredu hau ez dute betetzen amonioak, fosfatoak, orotariko fosforoak eta uhertasunak (**5. taula**). Aldagai hauen muturreko balioek (bereziki, amonioarenak eta fosfatoarenak) etxeko ur-hondakinen isuriak islatzen dituzte. Honek esan nahi du, azken urteetan izan daitezkeela isuriak hirigune handiak dituzten estuarioen (Nerbioi edo Bidasoa ibaienetan, adibidez) erdialdean edo behealdean. Bere hedadura osoan gazitasun-maila handi samarra duten estuarioetan (hau da, Oiartzun ibaiarenean) ere egon litezke isuriak gaur egun. Guzti hori, aurreko hamarkadetik iturri antropikoetatik datozen isuriak asko gutxitu diren testuinguruan.

### *Erreferentzia-balioekiko datuen alderaketa*

Aldundiaren mantenugaien segida historikoak 20 urte baino gehiagoko neurketak ditu lagintze-puntu askotan (itsasoaren eragin handiago duten beheko tartetean izan ezik) eta 1.000 eta 2.000 datu bitartean daude estuarioko. Hala ere, Aldundiaren mantenugaien datu gehienak gazitasun maila baxuei lotzen zaizkie, gehienetan, estuarioen goiko tartetean neurtu baitira (Revilla et al., 2011b).

Aldundiaren mantenugaien segidetan gazitasun baxua duten laginak gailentzen direla eta, Plan Hidrologikoan ur oligohalinoentzat adierazten diren kalitate-helburuak (URA, 2015; BOE, 2016) erabili dira. Kalitate-helburu horiek **6. taulan** laburbiltzen dira.

**6. taula.** Kalitate helburuak: OO/O (Oso Ona/Ona) eta O/N (Ona/Neurritzkoa) atalaseak estuarioetako gazitasun tarte desberdinetarako. Aldagai guztientzat zehazten diren balioak, gazitasuna barne, emari eta itsasaldi egoeren tarte zabal baterako batezbesteko bezala ulertu behar dira.

TARTEA	Gazitasuna (PSU)	Uhertasuna (NTU)		Amonioa ( $\mu\text{M}$ )		Nitratoa ( $\mu\text{M}$ )		Fosfatoa ( $\mu\text{M}$ )	
		OO/O	O/N	OO/O	O/N	OO/O	O/N	OO/O	O/N
Oligohalinoa (0-5 PSU)	2,8	$\leq 10$	$\leq 11$	$\leq 12,5$	$\leq 28$	$\leq 80$	$\leq 132$	$\leq 2,30$	$\leq 6,2$
Mesohalinoa (5-18 PSU)	11,5	$\leq 10$	$\leq 11$	$\leq 11$	$\leq 22$	$\leq 61$	$\leq 98$	$\leq 1,80$	$\leq 4,7$
Polihalinoa (18-30 PSU)	24,0	$\leq 8$	$\leq 9$	$\leq 7$	$\leq 14$	$\leq 33$	$\leq 50$	$\leq 1,00$	$\leq 2,5$
Euhalino estuarikoa (30-34 PSU)	32,0	$\leq 6$	$\leq 7$	$\leq 5$	$\leq 9$	$\leq 15$	$\leq 18$	$\leq 0,60$	$\leq 1,1$

### 2.3 Aldagai meteorologiko eta hidrografikoetan anomalien azterketa

Urola ibaiaren ibai- eta euri-erregimenaren azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko lagintze-puntu sare iraunkorreko AIZARNAZABAL B2Z1 edukiera eta ur kalitatearen lagintze-puntuko emari eta prezipitazio segiden azterketaren bitartez burutu da (<http://www.gipuzkoahidraulikoak.eus/eu/aforaleku-iraunkorren-sarea>).

Era berean, Gironde (Garona eta Dordoina ibaiak) estuarioko emarien datuak ere erabili dira, Urolako erregimen aldaketa tokiko eskala batean gertatu den edo emandako aldaketak eskualdeko edo Ipar Atlantikoko mailako aldaketa klimatikoari erantzunez eman diren egiaztatzeko. Emariaren datuak Bordeleko Portu Agintaritzak eman ditu.

Aldakortasun klimatikoaren adierazle bezala Ipar Atlantikoan aldakortasun atmosferikoko modu nagusia erabili da: Ipar Atlantikoko Oszilazioa (edo NAO, bere ingelesezko siglengatik). NAOa Ipar Atlantikoko neguko aldakortasun klimatikoaren modu nagusi bat da (Barnston eta Livezey, 1987).

NAO indizea Azores-eko antizikloi (goi-presioko gune subtropikala) eta Islandiako depresio (behe-presioko gune polarra) diren anomalien arteko diferentzia bezala definitzen da. Fase positiboak klima lehor eta hotzago bat ekartzen du berarekin Europa hego eta erdialdean.

Bestalde, anomalia metatuak erregimenen aldaketen azterketarako oso prozedura egokiak eta errazak dira. Horretarako, emari eta prezipitazio datuekin hileko batezbestekoak egin dira eguneko datuen maiztasun altuko aldakortasuna leuntzeko. Anomaliak, segida osoaren hil baten batezbesteko balioarekiko, horietariko hil zehatz bateko balioaren desbideraketa adierazten dute. Anomaliak, aldagai desberdinak konparatu ahal izateko, desbiderapen estandarrekiko estandarizatu edo zatitu egin dira. Anomalia metatuak hileko anomalia bakoitza segidan batzearen emaitza dira. Honela, malda negatibo batek batezbestekoa baino baxuagoak diren balioak errepikatzen diren denbora tarte bat adierazten duen bitartean, malda positibo batek aurkako joera adierazten du. Lan honetan harturiko erreferentziako denbora tarte segida luzera osoa izan da, alegia, 1998-2016.

Urtaroko zikloaren anomalien denboran zeharreko (19 urte) bilakaera nabarmentzeko, anomalia estandarizatuen Hövmoller diagramak eraiki dira, bai Urolaren emarirako eta bai prezipitaziorako ere.

## 3 EMAITZAK ETA EZTABAIDA

### 3.1 Klorofila kontzentrazioa Gipuzkoako estuarioetan

#### 3.1.1 Aldakortasun espazialaren eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak

“A” klorofilaren eta aldagai lagungarrien (tenperatura, pH eta gazitasuna) parametro estatistiko orokorrak (maximoa, minimoa eta batezbestekoa) bildu dira **7. taulan** estuario bakoitzerako, 1999.etik 2017.era bitarteko datuak hartuta (Oiartzun ibaiaren estuarioan, 1998.az gero).

“A” klorofilaren kontzentrazioa  $0,0$  eta  $182,4 \mu\text{g l}^{-1}$  artekoa da Gipuzkoako estuarioetan. Kontzentrazio hauek zientzia-argitalpenetan erdiko latitudeetako estuarioetarako zehazten diren tartetean daude. Adibidez, Mallin (1994) azterlanean  $0$  eta  $184 \mu\text{g l}^{-1}$  arteko klorofila kontzentrazioak ematen dira Ipar-Carolinako estuario batzutan (AEB).

**7. taula.** Estuario bakoitzean neurtutako tenperaturaren (T), pHaren, uhertasunaren (U), oxigenoaren kontzentrazioaren (Oxig.), oxigenoaren asetasun-mailaren (Ase. Oxig.), gazitasunaren (Gaz.) eta “a” klorofilaren (Chl-a) balio minimo, maximo eta batezbestekoak. 2017. urtera arteko neurketak hartu dira kontuan: Oiartzun ibaiaren estuarioan, 1998.ean hasi ziren eta, gainerakoetan, 1999.ean. Datu serieak urtarrila eta abendu bitartean egindako laginketak barneratzen ditu.


		T (°C)	pH	U (NTU)	Oxig. ( $\text{mg l}^{-1}$ )	Ase. Oxig. (%)	Gaz. (PSU)	Chl-a ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
<b>Deba</b>	Min.	5,9	6,1	1	0,9	9	0,0	0,0
	Max.	25,5	10,5	232	14,2	161	35,6	81,5
	Bat. best.	15,7	8,1	16	8,5	87	6,3	5,7
<b>Urola</b>	Min.	6,4	6,3	1	2,3	25	0,0	0,0
	Max.	25,1	9,1	400	21,2	204	35,0	156,2
	Bat. best.	16,0	8,1	15	8,8	92	9,1	4,3
<b>Oria</b>	Min.	5,4	6,9	0	0,6	7	0,0	0,0
	Max.	27,9	9,2	960	14,3	142	36,0	159,4
	Bat. best.	15,8	8,1	25	8,7	89	7,6	7,0
<b>Urumea</b>	Min.	6,1	6,1	0	4,0	42	0,0	0,0
	Max.	26,8	9,5	260	16,2	191	36,2	182,4
	Bat. best.	14,7	7,9	13	9,3	94	5,9	4,1
<b>Oiartzun</b>	Min.	8,3	6,0	0	0,0	0	0,0	0,0
	Max.	28,8	10,0	600	15,3	167	36,0	27,2
	Bat. best.	17,1	8,1	12	7,6	88	24,6	2,4
<b>Bidasoa</b>	Min.	5,2	6,1	0	4,1	53	0,0	0,0
	Max.	25,5	10,5	184	15,4	147	36,5	89,3
	Bat. best.	15,1	8,0	13	9,8	99	5,8	3,9
<b>GUZTIRA</b>	Min.	5,2	6,0	0	0,0	0	0,0	0,0
	Max.	28,8	10,5	960	21,2	204	36,5	182,4
	Bat. best.	15,8	8,0	15	8,8	92	9,8	4,5

2016. urtean zehar azaleko uren laginetan lortutako klorofila datuak eranskinetan ikus daitezke. Hauetan, lagintze egunetan *in situ* neurturiko gazitasuna ere aurkezten da.

Hein batean, gazitasunari lotzen zaion banaketa azaltzen du klorofilak (**8. irudia**). Hau ez da harrizkoa, gazitasunak eragin handia baitu fitoplanktonarengan. Eragin hori agerian geratzen da, bai zuzenean (espezieen artean aldatu egiten da gazitasunarekiko erantzun fisiologikoa, hoberena ur gezetatik hasi eta itsasoko uretara joan daitekeelarik) eta baita zeharka ere (ur gezaren ehunekoari lotzen zaizkion mantenugaien eta uhertasunaren baldintzengatik).

Polihalinoak (18-30 PSU) eta euhalinoak (30-35 PSU) diren uretan,  $50 \mu\text{g}\cdot\text{l}^{-1}$  baino baxuagoa izan da beti kontzentrazioa, eta gutxitan gaintitu ditu  $20 \mu\text{g}\cdot\text{l}^{-1}$ . Aldiz, gazitasun baxuagoko uretan, klorofila kontzentrazioen muturreko balioen maiztasuna eta zenbatekoa handiagoa izan da (**8. irudia**). Honek, fitoplankton-biomasaren metaketa handienak estuarioen goiko tarteetan gertatu direla adierazten du, eta, hein batean, ibaietako uren ongarritze efektuari zor zaio. Tarte hauetan uren egonaldia handiagoa dela ere kontuan izan behar da (uholderik ez dagoen bitartean), itsasaldiaren eragina txikiagoa baita leku hauetan.

Udara-garaian, orokorrean, urak gardenagoak dira eta uholde gutxiago egoten dira. Honek mesede egin liezaioke fitoplanktonaren hazkuntzari estuarioen goiko tarteetan. Klorofilaren kontzentrazioa gazitasun gutxiagoko tarteetan emendatzearen erudia, batez ere udaran, EAEko estuario askotakoren antzekoa da (Villate et al., 1991; Franco, 1994; Borja et al., 2010).



**8. irudia.** "A" klorofilaren (Chl-a) kontzentrazioaren banaketa gazitasunarekiko (PSU), neurtu diren datu guztiak kontuan hartuta, 1998.etik 2017.era bitartean, Gipuzkoako estuarioetan.

### 3.1.2 Estuario bakoitzeko urteroko zikloaren azterketa

2013.ean “a” klorofilaren kontzentrazioaren urtarokotasunari buruzko azterketa bat egin zen gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak aldagai hau neurtzen duen puntuetan, hau da, Oiartzun ibaiaren estuarioko lau lagintze-puntutan eta gainerako estuarioetako hiru lagintze-puntutan (ikus **1. taula**, Metodologia). Aipatutako azterketa honek “a” klorofilaren laginketarako urteko garairik egokiena finkatzen lagundu zuen: apirila bukaeratik urria bukaerara. Estuario bakoitzari dagozkien emaitzak xehetasun handiagoarekin Revilla et al. (2013)-n kontsulta daitezke. Txosten honetan, orduan lortutako emaitza nagusiak laburtzen dira eta, era berean, egundaino lorturiko datuekin analisi matematiko orokorrak burutu dira.

Denbora-segidetako balio minimoak eta maximoak zerrendatu diren **8. taulan** ikus daitekenez, hazkunde handieneko garairako (udaberri-udazken), klorofilaren kontzentrazioak asko alda daitezke estuario bereko tarte batetik bestera. Estuario gehienetan, kontzentrazio altuenak gazitasun baxuko uretan ikusten dira (ibai urak, oligohalinoak eta mesohalinoak), eta  $100 \mu\text{g l}^{-1}$  baino gehiagora hel daitezke baita ere. Aipatu behar da, Urolak eta Urumeak datu-serie historikoaren balio altuenak erakutsi dituztela 2016.ean.

Maximoen zenbatekoa estuarioetako goiko tartetik bokalerantz gutxitzen ohi doa, gazitasuna igotzen doan neurrian. Estuario batzuetako erdiko edo beheko zonak bereizten dituzten tarte polihalinoan, zaila da  $25 \mu\text{g l}^{-1}$ -koa baino kontzentrazio altuagoak topatzea (Orian izan ezik, ia  $50 \mu\text{g l}^{-1}$ -kin). Tarte euhalinotan denborazko-segidan neurtutako maximo absolutua  $25 \mu\text{g l}^{-1}$ -koa izan da (Oiartzun).

Gaur egun klorofila neurtzen diren lagintze-puntuak estuarioko goiko eta beheko tarteen bitartean banatzen dira eta gazitasun-tarte nagusien adierazgarri dira (**8. taula**). Aurreko atalean azaldu denez, gazitasunak ibaien emariek itsasokoekiko duten eragin erlatiboa islatzen du eta fitoplanktonaren gainean eragina du (zuzenean edo zeharka). Hau da, hein batean, klorofilaren maximo historikoak estuarioen goiko tartean, gazitasuna baxuagoa den eremuan, topatzearen arrazoa. Oiartzun estuarioan, ordea, gazitasun baldintzak espazialki uniformeagoak dira, eta honek klorofilaren muturreko balioen aldakortasun espaziala txikiagotu egiten du ( $20\text{-}25 \mu\text{g l}^{-1}$ ).

**8. taula.** Gipuzkoako estuarioetako tarte bakoitzean neurtutako “a” klorofilaren kontzentrazio minimo eta maximoak, Chl-a ( $\mu\text{g l}^{-1}$ ), lortu diren datu-segida luzeenetan zehar eta fitoplanktonaren hazkunde handieneko garaian (apirila-urria). Datu-segida hauetan kalkulaturako medianan oinarrituz eta **3. taulan** azalduetako irizpideak erabiliz zehaztu dira gazitasun-tarteak.

Estuarioa	Lagintze-puntua	Zona	Denbora-segida	Gazitasuna (mediana)	Baldintzak	Chl-a Min.	Chl-a Max.
Deba	6	Goikoa	1999-2017	0,2	Ibaikoak	0,2	72,4
	3	Erdikoa	1999-2017	5,7	Mesohalinoak	$\leq 0,1$	81,5
	1	Behekoa	1999-2017	16,5	Mesohalinoak	$\leq 0,1$	35,0
Urola	5	Goikoa	1999-2017	3,2	Oligohalinoak	$\leq 0,1$	156,2
	3	Erdikoa	1999-2017	16,9	Polihalinoak	$\leq 0,1$	12,0
	1	Behekoa	1999-2017	25,0	Polihalinoak	$\leq 0,1$	19,7
Oria	4	Goikoa	1999-2017	0,5	Oligohalinoak	$\leq 0,1$	103,0
	2	Erdikoa	1999-2017	13,6	Mesohalinoak	$\leq 0,1$	46,6
	0	Behekoa	2001-2017	27,3	Polihalinoak	$\leq 0,1$	48,5
Urumea	6	Goikoa	1999-2017	0,1	Ibaikoak	$\leq 0,1$	80,2
	9	Erdikoa	1999-2017	9,7	Mesohalinoak	0,2	182,4
	11	Behekoa	2001-2017	29,4	Polihalinoak	$\leq 0,1$	24,4
Oiartzun	6	Goikoa	1998-2017	30,2	Euhalinoak	$\leq 0,1$	21,7
	4	Erdikoa	1998-2017	31,9	Euhalinoak	$\leq 0,1$	25,0
	2	Behekoa	1998-2017	33,6	Euhalinoak	$\leq 0,1$	19,6
	1	Kaia	1998-2017	31,9	Euhalinoak	$\leq 0,1$	23,8
Bidasoa	4	Goikoa	1999-2017	1,9	Oligohalinoak	0,2	89,3
	5	Erdikoa	1999-2017	11,2	Mesohalinoak	$\leq 0,1$	76,7
	6	Behekoa	2001-2017	27,3	Polihalinoak	$\leq 0,1$	13,8
Guztira					$\leq 0,1$	182,4	


Jarraian, aurreko azterlan batetan lortutako klorofilaren urteroko zikloaren emaitzak laburbiltzen dira. Xehetasun gehiagorako, Revilla et al. (2013) kontsulta daiteke.

### *Urtaroko aldakortasuna Deba ibaiaren estuarioan*

Denbora-segidako minimoak  $0,1 \mu\text{g l}^{-1}$  ingurukoak dira eta hilabete hotzetan ematen dira (urtarrila eta martxoa bitartean) (**9. irudia**). Estuarioaren goiko tartean zenbait balio baxu ere ikusten dira ekaina eta azaroan (**9. irudia**, A). Minimoek garai euritsuetako fitoplanktonaren gaineko ibai-arrasteen eragina adierazten dute, eta hauek probabilitate handiagoarekin neguko hilabeteetan gertatzen dira.

Estuarioaren goiko eta erdiko tartetean klorofilaren muturreko balio altuenak hilabete beroenetan ikusten dira (**9. irudia**, A, B).

Eredu hau beheko tartean aldatu egiten da (**9. irudia**, C) eta bi garaietan hautematen dira klorofilaren kontzentrazioaren muturrak: alde batetik, udaberrian (apirilean ematen delarik maximo absolutua) eta, bestetik, udara amaieran (irailean).




**9. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Deba ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 3 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 1 lagintze-puntua (beheko tartea). Neurketen segidako 1999. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.

### *Urtaroko aldakortasuna Urola ibaiaren estuarioan*

Urola ibaiaren estuarioaren goiko tartean irudiaren itxura ahurra da gutxi gorabehera (**10. irudia**, A). Apirila eta iraila bitartean balio oso baxurik ia ez dagoelako gertatzen da hori, eta baita ere kontzentrazio maximoak garai horretan ematen direlako.

Urola ibaiaren erdiko eta beheko tartetean (**10. irudia**, B eta C) ziklo bimodala antzematen da, udaberrian (martxoa eta maiatza bitartean) eta udaran (uztaila eta iraila bitartean) ematen baitira muturreko balioak. Urolaren ibaiaren estuarioko minimoak, urteko edozein garaitan gerta daitezkeen arren, bakanagoak dira udaberrian.






**10. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Urola ibaiaren estuarioan: (A) 5 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 3 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 1 lagintze-puntua (beheko tartea). Neurketen segidako 1999. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.

### *Urtaroko aldakortasuna Oria ibaiaren estuarioan*


Orian ezin da urtaroko ziklo argirik antzeman klorofilaren muturreko kontzentrazioentzat. Goiko tartean bakarrik (4 lagintze-puntua) hauteman daiteke ereduren bat: uztailea eta urria bitartean balio guztiak  $1 \mu\text{g l}^{-1}$  baino handiagoak dira, gainerako hilabeteetan balio baxuagoak badaudelarik (urtarrilean izan ezik, baina datu bakarra dago) (**11. irudia, A**).

Erdiko tartean (2 lagintze-puntua), baliorik gehienak  $1 \mu\text{g l}^{-1}$  eta  $10 \mu\text{g l}^{-1}$  artekoak dira, tarte horren gaineko edo azpiko datu bakan batzuk badauden arren (**11. irudia, B**).

Oria ibaiaren estuarioko beheko tartean (0 lagintze-puntua), muturreko hiru balio ezik (otsaila, abuztua eta urria), denbora-segidako 12 urteetan oso tarte estuan sartzen dira kontzentrazioak ( $0,1\text{-}4 \mu\text{g l}^{-1}$ ) eta ezin da urtaroko aldakortasun-eredurik antzeman (**11. irudia, C**).



**11. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Oria ibaiaren estuarioan: (A) 4 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 2 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 0 lagintze-puntua (beheko tartea). Neurketen segidako 1999. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.



**12. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Urumea ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 9 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 11 lagintze-puntua (beheko tartea). Neurketen segidako 1999. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.

### *Urtaroko aldakortasuna Urumea ibaiaren estuarioan*

Goiko tartean klorofilaren kontzentrazioirik handienak ( $10 \mu\text{g l}^{-1}$  eta  $100 \mu\text{g l}^{-1}$  artean) udaran zehar eta udazkenaren hasieran neurtu dira: ekaina eta urria bitartean (**12. irudia, A**).

Erdiko tartean, klorofilaren muturreko balioak ez dira horren nabariak ( $10 \mu\text{g l}^{-1}$  inguru) eta maitatza eta urria bitartean ematen dira (**12. irudia, B**).


Beheko tarreak urtaroko aldakortasun gutxiago du, eta muturreko balio bakanak martxoa eta iraila bitartean neurtu dira (erdiko tartean bezala,  $10 \mu\text{g l}^{-1}$  inguru) (**12. irudia, C**).

Urumea ibaiaren estuarioko denbora-segida osoko datuak kontuan hartuta, baliorik baxuenak estuarioko erdiko tartean neurtu dira ( $0,1 \mu\text{g l}^{-1}$  inguru), azaroa, abendua eta otsailean.

### Urtaroko aldakortasuna Oiartzun ibaiaren estuarioan

Estuario honek Gipuzkoako gainerako estuarioek baino batezbesteko gazitasun balio handiagoak ditu, 25 eta 33 PSU bitartekoak. Honek, itsasoaren eragina oso handia dela esan nahi du (Revilla eta Muxika, 2012).


Azken 15 urteotako klorofilaren kontzentrazioarik altuenak  $10\text{-}25 \mu\text{g l}^{-1}$  tartekoak izan dira eta apirila eta uztaila bitartean neurtu dira (**13. irudia**). Kontzentrazioarik baxuenak  $0,1 \mu\text{g l}^{-1}$  ingurukoak edo baxuagoak izan dira, eta urteko edozein hilabetetan eman daitezke. Aipatu beharra dago 6 lagintze-puntuan, goiko tartean edo portuko goiko muturrean kokatua dagoena, kontzentrazio minimoak gainerako lagintze-puntuetan baino handixeagoak direla (**13. irudia, A**).



**13. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Oiartzun ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 4 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 2 lagintze-puntua (beheko tartea); (D) 1 lagintze-puntua (Herrera kaia). Neurketen segidako 1998. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.

### Urtaroko aldakortasuna Bidasoa ibaiaren estuarioan

Bidasoa ibaiaren estuarioan, **14. irudian** antzeman daitekeenez, klorofilaren muturreko balioek ez dute denbora-eredu argirik jarraitzen. Hala ere, balio minimoak ez dira horren nabarmenak maiatza eta iraila bitartean. Balio altuenak,  $10 \mu\text{g l}^{-1}$ -tik gorakoak, maiatza eta azaroa bitartean neurtu dira.



**14. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) urtaroko aldakortasuna Bidasoa ibaiaren estuarioan: (A) 4 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 5 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 6 lagintze-puntua (beheko tartea). Neurketen segidako 1999. eta 2012. bitarteko datuak hartu dira. Datuak eskala logaritmikoan irudikatu dira.

### 3.1.3 Estuario bakoitzeko klorofilaren joera epe luzera

Klorofilaren kontzentrazioaren epe luzerako bilakaera aztertzeko sei urteko epeak erabiliz 90. pertzentilak zenbatetsi dira, orain arte bildutako datu-segidak hartuta. Hala, lehen sei urteko epea 1998.etik 2003.era doa eta, azkena, 2011.etik 2017.era. Metodologian aipatuenez, azterketa honetarako apirila eta urria bitarteko datuak bakarrik erabili dira, biak barne.

Estuario bakoitzeko emaitzak **9. taulan** laburbildu dira. Denboran zehar maiztasuna aldatzen joanenez, laginaren neurria (N) ez da berdina aztertu diren aldi guztietarako. Aztertu diren aldietan, 15 datukoa izan da neurririk txikiena eta 26 datukoa izan da handiena.

90. pertzentila  $1,1 \mu\text{g l}^{-1}$  eta  $58,1 \mu\text{g l}^{-1}$  artekoa da. Estuario bakoitzeko maximo absolutuak erdiko edo goiko tartean hautematen dira, Oiartzun ibaiaren estuarioan izan ezik, non Herrera kaian ematen baitiren. Minimoak beheko tartean topatzen dira, izaera itsastarreko tartean.

**9. taula.** Lagintze-puntu bakoitzean 90. pertzentila zenbatetsi diren 6 urteko denbora tarteek dituzten datu kopuru (N) minimoa eta maximoa aurkezten dira. "A" klorofilaren kontzentrazioaren datuekin neurtutako 90. pertzentilen (90P) tartea (balio minimoa eta maximoa) ere aurkezten da.


Estuarioa	Lagintze-puntua	Tartea	Denbora-segida	N Min.	N Max.	90P Min.	90P Max.
Deba	6	Goikoa	1999-2017	15	24	7,5	23,5
	3	Erdikoa	1999-2017	16	26	15,8	20,5
	1	Behekoa	1999-2017	16	25	3,6	10,3
Urola	5	Goikoa	1999-2017	19	26	13,3	34,9
	3	Erdikoa	1999-2017	19	26	3,2	7,7
	1	Behekoa	1999-2017	19	25	2,0	5,2
Oria	4	Goikoa	1999-2017	16	26	29,2	54,9
	2	Erdikoa	1999-2017	17	26	2,7	27,8
	0	Behekoa	2001-2017	16	26	1,1	12,2
Urumea	6	Goikoa	1999-2017	19	26	12,6	58,1
	9	Erdikoa	1999-2017	18	25	4,6	11,4
	11	Behekoa	2001-2017	22	26	1,8	4,0
Oiartzun	6	Goikoa	1998-2017	17	24	5,0	8,5
	4	Erdikoa	1998-2017	17	24	5,7	10,8
	2	Behekoa	1998-2017	15	24	3,2	6,0
	1	Kaia	1998-2017	17	24	5,9	14,9
Bidaso	4	Goikoa	1999-2017	18	25	4,8	15,0
	5	Erdikoa	1999-2017	19	26	5,7	38,9
	6	Behekoa	2001-2017	22	26	3,7	5,6
Guztira				15	26	1,1	58,1

Ondoren, klorofilaren 90. pertzentilak izan duen bilakaera grafikoki aurkezten da eta, Metodologia atalean azaldu den adierazlean oinarrituta, uren kalitatearen balioztatzea egingo da.

### Deba ibaiaren estuarioa

Goiko tartetean (ibaikoa-oligohalinoa) 2000ko hamarkada hasieran zehar neurtu ziren kontzentrazioak eutrofizazio adierazle dira (**15. irudia, A**). Ondoren, indizeak beheranzko joera erakutsi zuen eta azken denbora-tartetean atalasetik gertu edo azpitik dago. Estuarioaren erdiko eta beheko tarteeak (oligo eta mesohalinoa) egonkortasun handiagoa erakutsi dute denboran zehar (**15. irudia, B, C**), estuarioaren erdiko tartean fitoplanktonaren nolabaiteko metaketa adierazten duten kontzentrazio nahiko altuak 3 lagintze-puntuak ikusi direlarik (**15. irudia, B**).


Klorofila maximoak ( $30 \mu\text{g l}^{-1}$  gertukoak beheko tartean eta  $80 \mu\text{g l}^{-1}$  gertukoak goiko tartean) 2015.eko apirilan ikusi ziren. Muturreko balio hauek oso gazitasun baxuko ibai izaeradun ( $<0,5$  PSU) urei lotu zitzairen. Honek, 2016.eko neurritzko balio batzurekin batera ( $10-20 \mu\text{g l}^{-1}$ ), 90. pertzentilaren balioaren igoera arina ekarri du azken denboratan.



**15. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Deba ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 3 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 1 lagintze-puntua (beheko tartea). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak. Lagintze-puntua bi gazitasun-tartetik oso gertu dagoen kasurako (**8. taula**), bi atalase aurkezten dira.

### Urola ibaiaren estuarioa

Estuarioaren goiko tartean 2013.erarte klorofilaren 90. pertzentilak balio nahiko egonkorrak erakusten ditu, egoera *Ona* eta *Neurrizkoa* bereizten dituen atalasetik gertu kokatuz (**16. irudia**, A). Hala ere, 2014.ean indizea gora doa, eremu horretan azken urteetan gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa izan denaren adierazle. Honela, oligohalino izaerako uretan, 2014. eta 2015.eko udaberri eta udaran 20-40  $\mu\text{g l}^{-1}$  inguruko kontzentrazioak maiz topatu izan dira. Gainera, 2016.eko maiatzan estuario honen gehiengo historikoa neurtu zen ( $\sim 150 \mu\text{g l}^{-1}$ ), oso gazitasun baxuko uretan (0,7 PSU). 2014-2016.eko udaberriean ikusitako prezipitazio jeitsierak eta ibai emariak agian aipaturiko muturreko klorofila balio hauek eragin dituzte (ikus 3.4 atala).




**16. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Urola ibaiaren estuarioan: (A) 5 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 3 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 1 lagintze-puntua (beheko tartea). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak. Lagintze-puntua bi gazitasun-tartetik oso gertu dagoen kasurako (**8. taula**), bi atalase aurkezten dira.

90. pertzentilak erdiko eta beheko tartetean eta denbora-segidako aldi guztietan klorofila gehiegizko baldintzarik ez dela ikusi adierazten du, hau da, 1999.etik gaur egundaino (**16. irudia**, B, C). Hala ere, erdiko tartean goranzko joera sumatzen da.

### *Oria ibaiaren estuarioa*

Orian, klorofilaren 90. pertzentilak goiko tarteranzko emendatze-eredua jarraitzen du, gazitasunaren alderantzizkoa (**17. irudia**).



**17. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Oriain estuarioan: (A) 4 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 2 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 0 lagintze-puntua (beheko tartea). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak.

2000ko hamarkadan zehar goiko tartean (Aginaga-ko lehenengo ontziralekuak) neurtu ziren klorofilaren balio hain handiek, estuarioan tarte horretako presio antropiko altuari zor lekizkioken intentsitate handiko loratze fitoplanktonikoak ematen zirela adierazten dute. Kontuan hartu behar dira ere 2000ko hamarkadaren lehenengo erdian eman ziren agorraldi luzeko baldintzak,



ibaiaren eragin handieneko zonan fitoplanktonaren atxikipena erraztuko zutelarik. Ondoren, balio altu hauek gero eta urriagoak eta txikiagoak izaten ari dira. Nahiz eta epe luzera 90. pertzentilak beherantz egin duen, 2009-2014 denbora tartetik egonkortuta dago eta oraindik ere kalitate-atalasera ez da iristen, zeina  $13,20 \mu\text{g l}^{-1}$  baiten ur oligohalinoetarako (**17. irudia**, A).

Beheko eta erdiko tartetean, klorofilaren 90. pertzentilak 2000ko hamarkada erdialdean bakarrik adierazten ditu eutrofizazio arazoak. Ondoren, adierazlearen balioek hoberanzko joera azaltzen dute eta, gaur egun, atalasetik behera daude (**17. irudia**, B, C).


### *Urumea ibaiaren estuarioa*

Orian bezala, Urumea ibaiaren estuarioan ere, klorofilaren 90. pertzentilak goranzko emendatze-joera du, ibaiaren eragina handiagoa den heinean (**18. irudia**).

6 lagintze-puntuaren indizea, orokorrean, egoera *Ona* eta *Neurrizkoa* bereizten dituen atalasearen gainera dago, estuarioaren goiko tartean eutrofizazio arazo iraunkorrak egon litezkeela adierazirik (**18. irudia**, A). Ibaiko eta oligohalino izaera duten ur hauetan, klorofilaren 90. pertzentila asko aldatzen da denboran zehar. Balio hau baxu samarra da 2000ko hamarkada hasieran eta fitoplanktonaren biomasa ez dela gehiegizkoa adierazten du. Aldiz, urte batzuk geroago, balioa asko handitzen da. 2000ko hamarkadaren bukaeratik hona atalasetik gertuago kokatzen da, fitoplanktonaren kalitate hoberanzko itzulera adieraziz.

Estuarioan behera indizeak orokorrean egoera *Ona* erakutsi izan du (**18. irudia**, B, C). Hala ere, aipatu behar da, 2016.ean 9 lagintze-puntuak Foru Aldundiko klorofilaren denbora-segida osoko baliorik altuena erakutsi zuela ( $\sim 180 \mu\text{g l}^{-1}$ ).

Hernani, Astigarraga eta Martutene inguruko hondakin-uren isuriak hodi-biltzaile batera eraman ondoren, 90eko hamarkadan egindako saneamendu lanak, oxigenoak eta mantenugaiak (amonioa eta fosfata) hurrengo urteetan izan dituzten hobetzeetan islatzen dira. Aldiz, estuarioaren goiko tartean (6 lagintze-puntua, Txomin-Enea auzoko zubia), klorofilak emendatze erantzun bat erakusten du (eutrofizazio arazoan adierazle), hain zuzen uraren baldintza fisiko-kimikoak (oxigenoa eta mantenugaiak) hobetzen diren urteetan. Hala ere, estuarioaren deskontaminazioa dela eta, ez da harrizkeoa klorofilak horrelako erantzuna erakustea. Gogoan izan behar da tratatu gabeko isuriek biotarentzat, fitoplanktona barne, toxikoak izan daitezkeen gaiak izan ditzaketela. Adibidez, amonioak, kontzentrazio handitan, alga espezie askoren hazkuntza galarazten du.



**18. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Urumea ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 9 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 11 lagintze-puntua (beheko tartea). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak. Lagintze-puntua bi gazitasun-tartetik oso gertu dagoen kasurako (**8. taula**), bi atalase aurkezten dira.

Datuak xehetasun gehiagorekin aztertuz, estuarioaren goiko tartean neurtutako 90. pertzentilaren kontzentrazio handiak 2004. eta 2006. urteetan eman ziren loratzeei ( $60-80 \mu\text{g l}^{-1}$  tartean zeuden kontzentrazioak) zor zaizkiela hauteman daiteke. Bi hipotesik azaldu litzakete gertakari horiek Urumea ibaiaren estuarioaren goiko tartean:

- (1) Argitasun gehiago (uhertasun gutxiago) isurien desbideraketagatik. Baina hipotesi hau baztertu egin daiteke aurreko txosten batean egin zen aldagai honen bilakaeraren azterketa dela medio (Revilla et al., 2011b).
- (2) Ibaiaren emaria gutxitzera eraman zuten faktore meteorologikoak. Aurreko txostenetan azaldu denez: udarako lehortea egon zen eta minimoak neurtu ziren oxigenoarentzat 1999., 2001., 2003., 2004. eta 2005.ean; eta minimoak oxigenoarentzat 2006.ean ere. Beraz, baliteke baldintza meteorologikoek Urumean fitoplanktonaren metaketan laguntzea.

Urumea ibaiaren estuarioaren goiko tartean 2000ko harmakadaren erdialdera eman ziren loratzeen ondoren, ez ziren klorofilaren kontzentrazio hain altuak berriro topatu. Dena den, 2015. urtean erdiko tartean (9 lagintze-puntua, Burdinezko zubia)  $52 \mu\text{g l}^{-1}$ -ko balio altu bat ikusi zen, maila ertain-altukoa kontsidera daitekeena; eta 2016.ean estuarioaren maximo historikoa neurtu zen lagintze-puntu honetan ( $\sim 180 \mu\text{g l}^{-1}$ ). Muturreko azken bi balio hauek udaberri bukaeraren eta udara hasieraren artean (ekainan) ikusi ziren.

### *Oiartzun ibaiaren estuarioa*

Segida historikoan, klorofilaren 90. pertzentila  $3,2 \mu\text{g l}^{-1}$  eta  $14,9 \mu\text{g l}^{-1}$  artekoa da (**19. irudia**). Balio hauek baxuak dira Gipuzkoako estuario gehienekoekin alderatuz. Hala ere, estuario honetako gazitasun altua kontuan izan behar da, itsas urarenaren gertukoa dena (**1. taula**). Honek kalitatearen sailkapenerako erabilitako atalase-balioa baxuagoa izatea eragiten du eta, beraz, zorrotzagoa izatea (**3. taula**).


Oiartzun ibaiaren estuarioan, klorofilaren 90. pertzentilak presio antropikoari lotutako eredu espazialak ditu. Hala, **19. irudian** (D) azaltzen denez, 1 lagintze-puntuan (Herrera kaia) antzeko gazitasuna duten estuarioko beste tarte batzuetakoak baino kontzentrazio handiagoak daude. Izan ere, adierazleak nabarmen gainditzen du atalasea lagintze-puntu horretan, eta hau fitoplanktonaren intentsitate altuko loraldiaren zantzua da. Honen harira, badira Herrera kaian tratatu gabeko hondakin-urak isurtzen direla adierazten duten azterlanak (Revilla et al., 2011c). Gainera, berritze gutxiko eremu bat da (Montero et al., 2011), honek fitoplanktonaren metaketan laguntzen duelarik. Zona honetan indizeak denbora-segidaren hasieratik (90eko hamarkada bukaeran) goranzko joera erakutsi du, nahiz eta azken urteotan gutxitzen ari dela dirudien.

Itsasaldiak sorrarazitako garraioarengatik, Herrera kaiko isuriek eragina izan zezaketen ere 2 lagintze-puntuan (beheko tarte). Tarte honetan (**19. irudia**, C) atalasearen gainetik dauden 90. pertzentilaren balioak ere maiz antzematen dira, baina ez dute kaian adina gainditzen.

Goiko tartean pertzentilak beheranzko joera du datu-segidaren hasieran, kalitatearen hobetzea adierazten duelarik, eta ondoren gora-behera txikiekin mantentzen da (**19. irudia**, A). Hala ere, erdiko tartean klorofilaren emendatzerako joera arin baina jarraitua antzematen da, gaur egun ur euhalinoentzat finkaturiko atalasea erraz gaindituz (**19. irudia**, B).

Kontuan izan behar da Oiartzun ibaiaren estuarioak eutrofizaziorako joera handia duela uraren berritze-tasa baxua dela eta. Estuario hau euskal kostaldeko sakonenetakoa da (20 m) eta, horregatik, bolumen handia du. Gainera, bolumenaren hein handi bat mareazpikoa da eta honek

uraren egonaldi baxua (astetakoa) eragiten du (Valencia et al., 2004a, b). Beraz, garrantzitsua da estuario honetan saneamendu ona egitea, Herrera kaian bereziki.



**19. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Oierzun ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 4 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 2 lagintze-puntua (beheko tartea); (D) 1 lagintze-puntua (Herrera kaia). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak. Lagintze-puntua bi gazitasun-tartetik oso gertu dagoen kasurako (**8. taula**), bi atalase aurkezten dira.


### *Bidasoa ibaiaren estuarioa*

Orokorrean denboran zehar, Bidasoa ibaiaren estuarioan, 90. pertzentilaren balioak Gipuzkoako gainerako estuarioetan, gazitasun berdintsuko lagintze-puntuetan, neurtu direnak baino

baxuagoak dira. Hala ere, azterketaren azken bi denboraldietan, indizeak balio altu samarrak erakusten ditu goiko tartean (4 lagintze-puntua, Behobiako zubia) eta erdiko tartean (5 lagintze-puntua, Santiagoko zubia-Irun). Azken honetan, indizeak erraz gainditzen du eutrofizazioaren adierazle den atalasea (20. irudia, B).

Izan ere, 2014. eta 2015. urteetan estuario honetako denbora-segidako klorofila baliorik altuenak topatu dira (gehienak udaran zehar). Zehazki, 4 lagintze-puntuan, 2014.eko uztailan,  $89 \mu\text{g l}^{-1}$ -ko balio altua ikusi da, eta 5 lagintze-puntuan  $50 \mu\text{g l}^{-1}$  gertuko kontzentrazioak, bi alditan (2014.eko uztailan eta 2015.eko irailan), eta  $77 \mu\text{g l}^{-1}$ -ko balioa (2015.eko ekainan) neurtu dira.

Duela urte gutxi arte, Bidasoa ibaiaren estuarioak ez zuen biomasa fitoplanktonikoaren gehiegizko pilaketa arazorik erakutsi aztertu diren lagintze-puntu bakar batean ere. Horregatik, estuarioaren erdiko-goiko tartean jatorri antropikoko mantenugai ekarpenik izan den edo, aitzitik, biomassaren igoera faktore meteorologikoengatik izan daitekeen hausnartu beharko litzateke.



**20. irudia.** Klorofilaren kontzentrazioaren (Chl-a) 90. pertzentilaren bilakaera Bidasoa ibaiaren estuarioan: (A) 6 lagintze-puntua (goiko tartea); (B) 9 lagintze-puntua (erdiko tartea); (C) 11 lagintze-puntua (beheko tartea). Gehiegizko biomasa fitoplanktonikoa adieraziko lukeen atalasea irudikatzen du lerro gorriak.

Estuario honek, Oiartzun ibaiarenak bezala, eutrofizaziorako joera handia duela esan beharra dago, bere baldintza hidrografikoak direla eta, bolumen oso handia baitu eta uraren berritze-tasa oso mantsoa baita (Revilla et al., 2011c). Horregatik, garrantzitsua da gutxiegia tratatutako hondakin-uren isurketarik ez ematea, honek inpaktua izango bailuke komunitate biologikoetan.

## 3.2 Oxigeno disolbatuaren edukia Gipuzkoako estuarioetan

### 3.2.1 Espazio- eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak

Laburpen moduan, datu segida osoen kasutarako (>10 urte), lagintze-puntu bakoitzaren datu-kopurua eta parametro estatistiko nagusiak azaltzen dira **10. taulan**. Estuario guztietan neurtu dira  $14 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  baino balio handiagoak (**10. taulan** gorritz adierazi direnak). Nahiz eta oso handiak izan, balio horiek ere kontuan izan dira azterketetan, fotosintesi-jarduera handiko egoerak adierazi baititzakete. Baliorik handienak,  $17\text{-}21 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  ingurukoak, Urola ibaiaren estuarioan neurtu dira (Saburutx zubian eta Narrondo errekan). Oxigenoaren muturreko balioak eta batezbesteko kontzentrazio handienak estuarioen goiko tarteetan eman ohi dira. Hau argi antzeman daiteke Orian eta Urolan, non barnealdean dauden lagintze-puntuetan eman baitira  $14 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  gainditzen dituzten balioak. Oiartzun ibaiaren estuarioan ere, ibaitik gertuen dagoen tartean, Pasaiaiko Portuaren barnealdean, hauteman da kontzentrazioarik altuena ( $14,20 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$ ).

Segida historikoko minimoei dagokienez, alde handiak antzematen dira bai estuario ezberdinen artean eta baita estuario bakoitzeko lagintze-puntuaren artean ere (**10. taula**). Oiartzun ibaiaren estuarioan, lagintze-puntu guztietan anoxia adierazten duten balio minimoak ere neurtu dira ( $0,3 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  baino gutxiago), bokalean izan ezik (non balio minimo historikoa  $1,8 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  baiten). Urumean, Añorga errekan eta Mijoa ibaian (Mutriku)  $1 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  baino balio baxuagoak neurtu dira. Aldiz, Bidasoan eta Orian, oxigenoaren minimoak  $3 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  eta  $5 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  artekoak izan ohi dira. Minimorik altuenak ( $4 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  eta  $6 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  artekoak) estuario batzuetan kanpoaldenean dauden lagintze-puntuetan neurtu dira, itsasoaren eragin gehien dutenetan, baita ibai eremutik oso gertu dauden lagintze-puntu batzuetan ere (Narrondo erreka Urola estuarioan bezala).

Aipatu beharra dago ibaietako urak estuarioetakoak baino hobeto oxigenaturik egon ohi direla, batez ere uhertasunaren eraginez. Gainera, estuarioek materia organikoan aberatsak diren isuriak jaso ohi dituzte, eta bakterioek eragindako oxidazio-tasa handiagoa dakarren uraren egonaldi handiagoak dituzte (Franco et al., 1998; Borja et al., 2000). Bestalde, estuarioan oxigenoak gorabehera handiak izan ditzakeen artean, itsasoan egonkortasun handiagoa dago eta, kontzentrazio minimoak eta batezbestekoak handi samarrak izan ohi dira.

Urteko aldakortasunari dagokionez, aurreko txostenetan estuario gehienetan neguko muturreko balioak eta udarako minimoak txandakatzen direla adierazi da, udaberrian eta udazkenean tarteko kontzentrazioak neurtzen direlarik.

Oiartzun ibaiaren estuarioan, ordea, ziklo urtarotarra ez da beste estuariotan bezain agerikoa. Hala, uraren oxigenazio-maila makalagoa uda-garaian den arren, alde gutxi dago neguko, udaberriko eta udazkeneko batezbesteko balioen artean.

**10. taula.** Disolbatutako oxigenoari ( $\text{mg l}^{-1}$ ) dagozkion parametro estatistikoak gaur egun lagintzen diren Gipuzkoako estuarioetan. Gorriz  $14,00 \text{ mg l}^{-1}$  edo handiagoak diren balioak adierazten dira.

Estuarioa eta denbora-tartea	Lagintze-Puntua	Kokapena	N	Max.	Min.	Bat.best.	Mediana	Desb. tip.	10. pertz.	90. pertz.
<b>DEBA (1988-2017)</b>	DEB55400S	Itsasoratzeke kai-muturra	118	12,50	5,10	8,50	8,38	1,68	6,33	11,04
	DEB54900S	Deba zubia	224	11,93	2,44	8,00	7,90	2,05	5,21	10,80
	DEB54300S	Finca Laskibar ontziola	221	14,23	2,78	8,08	8,00	2,17	5,24	11,08
	DEB53400S	Lasao baserria	220	14,03	3,47	8,33	8,40	2,12	5,28	11,16
	DEB52200S	F.E.V.E. zubia	221	12,60	1,90	8,04	8,10	2,29	4,79	11,16
	DEB50000S	Sasiola zubia	214	13,03	3,30	9,05	9,17	1,98	6,28	11,49
<b>MUTRIKU (2004-2017)</b>	MIJ04450S	Mijoa ibaia: MUTRIKU	87	11,81	0,90	8,17	8,41	2,47	4,80	11,07
<b>UROLA (1988-2017)</b>	URO58700S	Zumaiako portua	228	12,57	2,06	7,92	7,94	1,95	5,43	10,45
	URO57900S	N-634eko zubia	227	12,69	2,60	7,87	7,85	1,99	5,48	10,63
	URO57000S	F.E.V.E. zubia	209	13,40	2,60	7,83	7,64	2,17	5,02	10,90
	URO55800S	Padurak	225	16,10	2,72	8,42	8,47	2,44	5,35	11,56
	URO55000S	Gorostiaga zubia	228	15,10	2,09	8,61	8,85	2,37	5,23	11,40
	URO54100S	Kondekua	228	14,50	1,34	8,57	8,93	2,48	4,83	11,41
	URO52800S	Saburutx zubia	229	17,00	1,35	8,76	9,28	2,72	4,64	11,67
	NAR07500S	Narrondo erreka	88	21,21	4,90	10,28	10,43	2,84	7,13	13,87
<b>ORIA (1988-2017)</b>	ORI70700S	Itsasoratzeke kai-muturra	119	13,20	4,90	8,55	8,44	1,58	6,64	10,76
	ORI68700S	Orio zubia	227	13,20	4,18	8,18	7,96	1,85	5,90	10,88
	ORI67200S	Ontziola (Atxega)	229	13,05	4,08	8,10	7,90	2,01	5,58	10,99
	ORI64700S	Aginagako bigarren ontziralekuak	229	14,33	3,46	8,48	8,47	2,14	5,71	11,16
	ORI62400S	Aginagako lehenengo ontziralekuak	229	14,38	3,60	8,68	8,74	2,17	5,82	11,17
	ORI60200S	San Esteban zubia	226	14,51	3,43	9,13	9,54	2,17	6,07	11,60
<b>AÑORGA (1992-2017)</b>	ANI04800S	Añorga erreka	151	13,60	0,40	7,53	8,40	2,82	3,37	10,60
<b>URUMEA (1988-2017)</b>	URU41300S	Astigarragako bihurgunea	308	15,70	0,67	9,35	9,70	2,14	6,72	11,62
	URU42300S	Pilar auzoko zubia	303	14,80	0,39	8,97	9,40	2,38	5,84	11,48
	URU42800S	Martutene auzoko zubia	302	13,10	0,33	8,87	9,43	2,47	5,34	11,56
	URU44000S	Txomin-Enea auzoko zubia	305	16,20	0,74	8,70	9,00	2,40	5,40	11,29
	URU44600S	Kuarteletako zubiak	298	15,40	0,89	8,62	8,90	2,35	5,35	11,27
	URU45300S	Egiako zubia	298	13,20	0,95	8,40	8,89	2,36	5,13	11,17
	URU46600S	Burdinezko zubia	298	12,40	1,51	8,31	8,56	2,15	5,32	10,76
	URU48200S	María Cristina zubia	296	12,26	2,10	8,21	8,19	1,93	5,76	10,45
	URU49000S	Kursaaleko zubia	121	12,43	4,50	8,91	8,85	1,46	7,30	10,97
<b>OIARTZUN (1989-2017)</b>	OIA16700S	Itsasorako kanala	139	10,93	1,77	7,19	7,49	1,70	5,03	9,05
	OIA16200S	Herrera kaia	135	10,32	0,22	4,77	4,80	2,56	0,98	8,19
	OIA15500S	Portuko erdialdea	140	12,13	0,10	6,44	7,04	2,50	2,49	9,11
	OIA15000S	Molinao errekaaren ahoa	141	11,45	0,14	6,56	6,97	2,39	3,46	9,17
	OIA14500S	Lezoko kaia	143	11,45	0,04	6,25	6,80	2,48	2,04	8,56
	OIA14000S	Portuko barnealdea - Oiartzun ibaia	139	14,20	0,11	6,12	6,78	2,75	1,17	9,05
<b>BIDASOA (1992-2017)</b>	BID13500S	Arrantzale-kofradia	123	11,90	5,60	8,54	8,30	1,50	6,80	10,81
	BID10350S	Santiagoko zubia (Irun)	306	12,36	3,30	8,43	8,60	2,10	5,40	11,27
	BID07600S	Behobiako zubia	306	15,40	2,90	9,29	9,50	1,96	6,70	11,54
	BID04200S	Alunda-Lastaola bihurgunea (PK 81, C-131)	305	14,14	3,44	10,30	10,38	1,50	8,50	12,00
	BID00000R	Endarlazako zubia	209	14,00	3,59	10,32	10,29	1,36	8,78	11,95
	END10200R	Endara errekaaren ahoa	208	13,70	3,44	10,46	10,50	1,20	9,14	11,79



### 3.2.2 Estuario bakoitzeko epe-luzerako joerak

#### *Oxigenoa Deba ibaiaren estuarioan eta Mijoa ibaian*

1988. urteaz gero, Deba ibaiaren estuarioan neurtu diren balio minimoak, maximoak eta batezbestekoak azaldu dira **21. irudian**. 2000ko hamarkada bukaeran batezbesteko balioen joera positiboa ikusten da, eta balio minimoak ez dira hain nabariak izaten.

Azken urteetan bezala, 2017.ean estuarioak oxigenazio baldintza onak izan ditu, 9 mg l<sup>-1</sup> inguruko batezbesteko balioekin. Nahiz eta, orokorrean, azken urteetan baino zertxobait baxuagoak izan, 2017.ean minimoak ez dira hain nabarmenak izan (6-7 mg l<sup>-1</sup>), udaran eta urriaren hasieran neurtu direlarik. Oxigenoaren muturreko balioak, aldiz, 11 mg l<sup>-1</sup> ingurukoak izan dira, ohizkoa izaten ari den bezala, neguan neurtu direlarik.

Mijoa ibaiko lagintze-puntuan (MIJ04450S) oxigenoak urtez-urte izan duen bilakaera ere azaldu da **21. irudian**. 2004.az gero goranzko joera du oxigenoak, baina oszilazio batzurekin. Ibai honetan baliorik baxuena (0,9 mg l<sup>-1</sup>) 2004.eko udaberrian neurtu zen. Orokorrean, 2017.ean oxigenazio baldintza onak izan ditu ibaiak, 7 mg l<sup>-1</sup> inguruko edo balio altuxeagoak neurtuz. Hala ere, 2017. udarako minimoa (4,4 mg l<sup>-1</sup>) azken hamarkadan ibai honetan neurtu den baliorik baxuena izan da.


#### *Oxigenoa Urola ibaiaren estuarioan*

Epe luzean, disolbatutako oxigenoak Urola ibaiaren estuarioan izan duen joera positiboa izan dela ikus daiteke **22. irudian**, 80ko eta 90eko hamarkadekin alderatuz, azken bi hamarkadetan minimo arinagoetaranzko joera ikusirik.


2017.eko oxigenazio baldintzak aurreko urtekoen oso antzekoak izan dira eta ontzat har daitezke, estuarioan zehar neurtutako batezbesteko balioak 8-10 mg l<sup>-1</sup>-koak izanik. Balio minimoak, 6 mg l<sup>-1</sup> ingurukoak edo zertxobait baxuagoak izan zirenak, udaberrian (maiatza) eta udaran neurtu ziren; eta balio maximoak (12-13 mg l<sup>-1</sup>) ordea, neguan eta udaberri hasieran (apirila) neurtu ziren.

Narrondo errekan (NAR07500S), estuarioaren goi aldearen antzeko gazitasuna duen lagintze-puntu batean (ikus **1. taula**), 2006.ean hasi ziren oxigeno neurketak. Lehenengo urtean lagintze-puntu honetako oxigeno balioak baxuagoak izan ziren arren, ondoren Urola ibaiaren estuarioko inguruko mailara iritsi da: 2016.ean muturreko balio oso altu bat izan zen apirilari, agian fitoplankton loraldi baten ondorioz eraginda (**22. irudia**). 2017.ean erreka honetako oxigeno

kontzentrazioa tarte normal batean neurtu ziren, udarako  $6,5 \text{ mg l}^{-1}$  ko minimoaren eta negu bukaerako  $13,2 \text{ mg l}^{-1}$  maximoaren artean.



**21. irudia.** Deba ibaiaren estuarioko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartek adierazten dituzte.



**22. irudia.** Urola ibaiaren estuarioko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartekak adierazten dituzte.

### *Oxigenoa Oria ibaiaren estuarioan eta Añorga errekan*

Oriako estuarioan oszilazio batzuk antzeman dira denborazko segidan zehar; hala ere, oro har, oxigenazio baldintza onak topatu dira 2009.etik (**23. irudia**). 2017. urtean kontzentrazioak 7 eta 12 mg l<sup>-1</sup> artean aldatzen dira, estuario osorako batezbesteko balioa 9 mg l<sup>-1</sup> ingurukoanizanik. Baliorik baxueank 2017.ean udaran eta udazkenean (urria) neurtu dira, estuarioko erdiko eta beheko tarteetan. Maximoak, ostera, neguan eta udaberrian (apirila) neurtu dira.


Añorga errekarari dagokionez (ANI04800S / ANI05400S), epe luzera, oxigenoak hobekuntza nabarmena erakutsi du (**23. irudia**). 90eko hamarkadan, eta 2000koaren erdialdera arte, 0 mg l<sup>-1</sup> eta 2 mg l<sup>-1</sup> bitarteko balio minimoak neurtzen ziren. 2007.az gero, balio minimoak beti izan dira 3 mg l<sup>-1</sup>-ren gainetik, eta azken bost urteetan ez da neurtu 8 mg l<sup>-1</sup> baino kontzentrazio baxuagorik. 2017.ean oxigenoaren batezbesteko kontzentrazioa 10 mg l<sup>-1</sup> ingurukoa izan da.

### *Oxigenoa Urumea ibaiaren estuarioan*


Estuario honetan balio minimoen handitze nabarmena antzematen da epe luzean (**24. irudia**). Goiko tartean, Ergobia zubiaren (URU40200S) eta kuarteletako zubiaren (URU44600S) artean, 1 mg l<sup>-1</sup> baino kontzentrazio baxuagoak neurtzen ziren 80ko hamarkada bukaeran. Eremu hori 1991.az gero hasten da leheneratzen. Erdiko tartean, Egiako zubitik (URU45300S) Maria Cristina zubira arte (URU48200S), urte batzuren buruan hobetzen dira oxigeno-baldintzak. Lehen 1 mg l<sup>-1</sup> eta 2 mg l<sup>-1</sup> artean zeuden balio minimoak, 4 mg l<sup>-1</sup> eta 5 mg l<sup>-1</sup> artean izateraino handitzen dira 1995.ean. 2007.az gero, estuario osoan, balio minimoak nekez dira 6 mg l<sup>-1</sup> baino baxuagoak.

Estuario guztian zehar oxigeno-baldintzak onak izan dira 2017. urtean. Batezbesteko balioa 10 mg l<sup>-1</sup> ingurukoa izan da. Balio minimoa (7 mg l<sup>-1</sup>) udaran neurtu da eta balio altuenak (11-12 mg l<sup>-1</sup>) abendua eta martxo bitartean. Aldakortasun espaziala oso txikia izan da eta, nahiz eta urtaroko faktoreak izan nagusitu direnak, ez dute garrantzi handiko aldaketarik eragin.

Oxigenoaren kontzentrazioaren denbora-aldakortasuna eragile natural (meteorologikoak) eta antropikoen mende dago. Eragile nagusietako bat ibaiaren emaria da. Eurite handiak daudenean urek nekez izango dute oxigeno-eskasiarik. Aldiz, lehorre-baldintzetan uraren berritze gutxiago dago eta, beraz, oxigenoaren kontsumoa eragiten duten prozesuek beherakada nabarmenak eragin ditzakete. Hau udan gertatu ohi da, tenperaturak baldintzatzen dituen tasa biologikoak (arnasketa, bakterioen hazkuntza, e.a.) ere handiagoak direnean.



**23. irudia.** Oria ibaiaren estuarioko eta Añorga erreko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartek adierazten dituzte.



**24. irudia.** Urumea ibaiaren estuarioko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartek adierazten dituzte.

Eukal Herrian, 80ko hamarkada-bukaera eta 90eko hamarkada-hasiera artean, baldintza meteorologikoen ezaugarri nagusia lehorre handi bat izan zen. Izan ere, 1987. eta 1991. artean,  $370 \text{ l m}^{-2}$  baino baxuagoa izan zen udaberriko eta udako hilabeteetako euria, 1992.ean hasi eta 1998. arte  $400 \text{ l m}^{-2}$  baino gehiago egin zituelarik. Honek azalduko lituzke, hein batean, segidako lehen urteetan Urumea ibaiaren estuarioan neurtu ziren oxigenoaren minimo nabarmenak (**24. irudia**).

2000ko hamarkada-hasieran ere udako lehorre baldintzak egon ziren, eta agertzen diren  $5 \text{ mg l}^{-1}$  inguruko minimoetan islatzen da hau nonbait. Hala ere, 2007.eko abuztuan egin zituen euriteekin, urte horretako udako minimoak segidako handien artean daude,  $7 \text{ mg l}^{-1}$  inguru (**24. irudia**).

Bestalde, aurreko txostenetan adierazi zenez, Urumearen arroan saneamendu-lan aipagarriak egin dira. Hernani eta Martutene inguruko hondakin-uren hein handi bat hodi-biltzaile batera desbideratu zen 90eko hamarkada-hasieran. Honek ur-sistemara egiten ziren materia organiko ekarpenak gutxituko zituen, noski, eta, beraz, oxigeno-eskaria ere bai.

Azkenik, Urumea ibaiaren estuarioan eman diren aldaketak, bai eragile naturalek (hidrometeorologikoak) eta baita antropikoek ere (saneamendu-lanak) eragin dituzte. Nabarmentzekoa da estuarioan batezbesteko balioetan eta minimoetan antzeman den handitze orokorra, hein handi batean Urumeako hodi-biltzailera egindako desbideratzeak eta Loiolako HUA (Añarbeko mankomunitateak kudeatzen duena) abiarazteak eragindakoa.


### *Oxigenoa Oiartzun ibaiaren estuarioan*

Estuario osoan zehar oxigeno-baldintzen hobetzeak antzematen dira 1988. urtean hasten den denbora-segidan (**25. irudia**).

Alde nabarmena dago isuriak Murgita senaiara 1996.ean desbideratu aurretik, ondorenera. **25. irudian** agerienez, disolbatutako oxigenoaren baliorik baxuenak ( $2 \text{ mg l}^{-1}$  baino gutxiago) data horren aurretik neurtu ziren Herrerako lagintze-puntuan (OIA16200S). Isuriak itsasertzera desbideratu ondoren, urteroko batezbesteko kontzentrazioek goranzko joera jarraitu zuten estuario osoan. Gainera, 90eko hamarkada-bukaeraz gero, dagoeneako ez dira aurreko denbora-tartean neurtzen ziren bezain balio minimo baxuak neurtu.

2000ko hamarkada-bukaera aldean oxigenazio-baldintzen bigarren hobekuntza bat ikusten da, orduz geroztik nahiko egonkor mantentzen direlarik. Salbuespen gisa, Herrera kaian, udaran eta modu errepikari batean, beherakada nabarmenak ematen direla aipatu behar da. Minimo hauek  $4 \text{ mg l}^{-1}$  baino baxuagoak izaten ez diren arren, 2015.eko abuztuan  $2,8 \text{ mg l}^{-1}$  neurtu zen.





**25. irudia.** Oiartzun ibaiaren estuarioko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartekak adierazten dituzte.

2017.ean, 2010.etik ikusten diren oxigeno kontzentrazio antzekoak neurtu dira Oiartzun ibaiaren estuarioan,  $7,7 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  izanik datu guztien batezbestekoa. Aurreko urteetan ikusi den bezala, 2017.ean ere balio minimoek goranzko gradiente arina irudikatzen dute estuarioaren barnealdetik (OIA14000S,  $5\text{-}6 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$ ) kanpoaldera (OIA16700S,  $7 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  inguru). Hala ere, Herrera kaiko lagintze-puntuak (OIA16200S), zeina kanpoaldetik babestutako eremu batean kokatzen baiten, oraindik ere oxigeno kontzentrazio baxuenak neurtzen dira. Horrela, 2017.eko balio minimoa  $3,8 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$ -koa izan da (irailan neurtua).


### *Oxigenoa Bidasoa ibaiaren estuarioan*

Bidasoan oso nabarmena da 90eko hamarkada bukaeran oxigenoaren minimoek egin duten gorakada (**26. irudia**). Izan ere, aurreko urteetan  $3 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  inguruko minimoak hautematen ziren noizean behin. 2000. urteaz gero ez dira gehiago neurtu  $4,5 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  baino gutxiago.

Urteroko batezbesteko balioentzat ere epe luzeko joerak antzematen dira (**26. irudia**). Estuarioko hainbat tartetan, 2004.-2005. inguruan antzeman zen nolabaiteko apaltzearen ondoren, urteroko batezbestekoek goranzko joera dute: kanpoen dagoen lagintze-puntuak (BID13500S, arrantzale-kofradia), erdiko tartean (BID10350S, Santiagoko zubia-Irun) eta goiko tartean (BID07600S, Behobiako zubia). 2010. eta 2012. artean, balioen beste apaltze arin bat hauteman zen estuarioan zehar neurtutako batezbesteko balioetan, baina ondoren oxigeno kopurua goraka joan da.

Oxigeno-baldintzak onak izaten jarraitzen dute 2017.ean, estuarioko neurketa guztiak hartuta, batezbestekoa  $10 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  izan delarik. Baliorik apalenak ( $6 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  -tik hurbil) udaran neurtu dira, estuarioaren kanpoko eta erdiko tarteetan, BID13300S (arrantzale-kofradia), BID10350S (Santiagoko zubia-Irun) eta BID07600S (Behobiako zubia) lagintze-puntuetan. Balio maximoak neurritzekoak izan dira,  $11\text{-}13 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  balioak neurtuz neguan eta udaberri hasieran.

Endara errekek (END10200R) estuarioarekin bere goiko aldean egiten du bat, eta zona bereko beste lagintze-puntuak (BID00000R eta BID04200S) joera eta aldaketa tarte antzekoak erakusten ditu. Era berean, bere oxigenazio baldintzak 2017.ean onak izan dira ( $9\text{-}13 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$ ).



**26. irudia.** Bidasoa ibaiaren estuarioko lagintze-puntuetako disolbatutako oxigenoaren batezbestekoen joera. Batezbestekoak urtez-urtekoak dira, urtero lagintze-puntu bakoitzean hartutako datu guztiekin zenbatetsiak. Barra bertikalek, neurtutako kontzentrazioen tartek adierazten dituzte.

### *Oxigenoan ikusiriko joeren laburpena*

Nahiz eta oraindik lagintze-punturen batetan oxigeno kontzentrazio baxuak antzeman ahal diren, azken urteetan estuarioetako oxigenazio baldintzetan hobekuntza orokor bat ikusten da, egindako saneamendu lanak agerian jartzen direlarik.

Deba ibaiaren estuarioan 2000ko hamarkada bukaeratik balio minimoak ez dira hain nabarmenak, nahiz eta, noiz behinka, uda eta udazkeneko hiletan nolabaiteko beherakada ikusi. Oxigeno kontzentrazioaren urtaroko jeitsiera hauek naturalak dira, eta gainera, inoiz ez da  $5 \text{ mg l}^{-1}$  baino kontzentrazio baxuagorik ikusten. Mijoa ibaian balio minimoen igoera orokor bat ikusi da 2009. urtetik aurrera; eta ibai honetan, kontzentrazio hauek ez dira jada  $4 \text{ mg l}^{-1}$ -tik behera jeisten.

Urola ibaiaren estuarioan, baita 2000ko hamarkada bukaeratik ere, oxigenazio baldintza hobekak ikusten dira. 80ko hamarkadan goiko tartea zen oxigenoaren beherakada nabarmenenak erakusten zituen, baita  $2 \text{ mg l}^{-1}$ -tik behera ere. Ordutik ikusitako hobekuntza etengabekoa izan da estuario guztian zehar. Azken urteetan, balio minimoak  $5 \text{ mg l}^{-1}$ -tik ingurukoak dira, bai estuarioan bai Narrondo errekan.

Oriako ibaiaren estuarioan, hobekuntza joera ere antzematen da. Hau nabariagoa da erdiko-kanpoko tartean, hau da, Orioko herriaren inguruan, 2000ko hamarkada bukaeratik balio minimoak hain nabarmenak ez diren lekuan.

Añorga errekan, 2000ko hamarkadan hipoxia egoerak topatu baziren ere, 2012. urtetik aurrera balio minimoak ez dira  $8 \text{ mg l}^{-1}$ -tik jeitsi.

Urumea eta Bidasoa ibaien estuarioetan oxigeno kontzentrazioa, 80ko eta 90eko hamarkadatan ikusten ziren oszilazioekin alderatuz, egonkorrago mantentzen da urtean zehar. Hau, batez ere, balio minimoen igoeragatik izan da.

Hobekuntzarik nabarmenena Oiartzun ibaiaren estuarioan ikusi da. Hipoxia egoerak ez ziren arraroak 90eko hamarkada erdialdean. Saneamendu lanei esker, 2000ko hamarkada bukaeran estuario honetako oxigeno batezbesteko eta balio minimoak beste estuarioetako mailen antzekoak izatea lortzen da. Hala ere, Herrera kaia inguruetan oraindik oxigenoarekin arazoak ikusten dira noiz behinka.

Nahiz eta orokorrean oxigenoaren balio minimoak udan ikusten diren, udazkenean ere topatu izan dira beherakadak, tenperatura altu samar eta emari txikiarekin batera gertatuz. 2014. urtetik aurrera oxigenoaren beherakada hauek arruntagoak dirudite urrian eta azaroan. Hala ere, estuario guztientzat eredu komun bat ezartzea zaila da.

### 3.3 Amonioaren eta fosfatoaren kontzentrazioak

#### 3.3.1 Aldakortasun espazialaren eta denbora-aldakortasunaren eredu orokorrak

Aurreko txosten batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datu-baseko segida historiko osoan amonioaren eta fosfatoaren kontzentrazioek espazioan eta denboran duten aldakortasuna aztertu zen (Revilla et al., 2011b). Denborazko segida honetan, datu kopuru handien erakusten duten lagintze-puntuak goiko tartekoak dira. Hau, disolbatutako mantenugaien kontzentrazioak ezagutzeko erabilitako metodo analitikoak ur geza eta gazitasun baxuko urentzat diseinatuta daudelako da. Txosten honetan, azken urtean (2017) neurtu diren kontzentrazioak batezbesteko historikoarekin alderatuko dira eta azken bi hamarkadetako joera aztertuko da. Horretarako, aurrez, aldakortasunaren eredu orokorren laburpen bat egingo da.

Amonioa eta fosfata, neurrizko kontzentrazioetan, ibaietako eta estuarioetako uretan berezko osagaiak dira. Baina etxeko ur-hondakinen isuriak daudenean, amonioak oso kontzentrazio altuak erakusten ditu eta konposatu nitrogenatu ugariena da. Era berean, fosfatoak ere kontzentrazio altutan agertzeak presio antropikoa adierazten du.

Estuarioetan, berezko baldintzetan, mantenugai gehienak ibaitik datoz, itsas ingurunean urriagoa baita ibaiarekin alderatuz (salbuespenak ere badiren arren itsasertzeko azaleratzea ematen den tokietan). Hori dela eta, kontzentrazioek gazitasunarekiko alderantzizko erlazioa agertzea espero da. Hala ere, Gipuzkoako estuarioetan, txikiak diren heinean, diluzio-eredu kontserbakorrekiko desbideratzeak gerta daitezke. Estuario txikietan, ibaiaren emariak eta ekarpen antropikoek eragin handia dute amonioaren eta fosfatoaren maximoen banaketan. Alde batetik, hiriko ur-hondakinen isuriak zuzenean jasaten dituzten eremuetan, amonio eta fosfato edukiak gutxitu egiten dira ibaiaren emaria handia denean. Bestalde, itsasoaren eragina handia den eremuetan (Oiartzun ibaiaren estuarioan, adibidez) hondakin-uren isuriek muturreko kontzentrazioak eragin ditzakete gazitasun handi samarra duten uretan.

Gipuzkoako sei estuarioetan, segida historiko osoa kontuan izanda, 0,3-2500  $\mu\text{M}$  da amonio-kontzentrazioaren aldakuntza-tartea. Lagin gehienetan, balioak 100  $\mu\text{M}$  baino baxuagoak dira. Dena den, badira kasuak non askoz ere kontzentrazio handiagoak neurtu baitiren, gehienetan gazitasun oso baxuko uretan. Molinao errekan (MOL00600 lagintze-puntua, Oiartzun ibaiaren arroan) neurtu dira maximoak,  $10^3$   $\mu\text{M}$  ordenakoak. Lagintze-puntu honetan datu gutxi daude amonioarentzat (1989. eta 2000. bitartean bakarrik, eta beranduago 2012. eta 2016. bitartean),

baina azterlanaren lehenengo hamarkadan neurtu direnek EAeko maximo historikoak gainditzen dituzte (**4. taula**, Metodologia). Aipatzekoa da ere, lehenengo urteetan, San Markoseko zabortegiko lixibiatuak araztu gabe iristen zirela errekara.

Baxuagoak dira, baina horiek ere garrantzitsuak, Deba ibaiaren estuarioaren goialdeko lagintze-puntuetan, DEB50000 eta DEB51000 (~600  $\mu\text{M}$ ), eta Añorga errekan (~900  $\mu\text{M}$ ) hauteman diren amonio-kontzentrazioen muturreko balioak. Oiartzun ibaiaren estuarioaren gainerako tartean, baita Mijoa ibaian, eta Urola eta Urumea ibaien estuarioetan ere, amonioaren muturreko balioek ez dute 200  $\mu\text{M}$  gainditu gehienetan. Bidasoa ibaiaren estuarioa da amonio-kontzentrazioarik baxuenak dituen, arrunki 50  $\mu\text{M}$  baino baxuagoak izanik.

Fosfatoari dagokionez, 0,1-55  $\mu\text{M}$  da Gipuzkoako sei estuarioetarako segida historiko osoan neurtu den aldakuntza tartea. Deba ibaiaren estuarioan, Añorga errekan, eta Urumea eta Oiartzun ibaien estuarioetan 20 eta 60  $\mu\text{M}$  arteko maximoak neurtu dira. Maximo horiek EAeko estuarioetan neurtu diren maximo historikoen antzekoak dira (**4. taula**, Metodologia). Dena den, lagin gehienetan ez dira 10  $\mu\text{M}$  gainditzen.

Amonioarekin gertatzen den moduan, fosfatoaren kontzentrazioarik baxuenak Bidasoa ibaiaren estuarioari dagozkio.

Laburbilduz, Añorga erreka, Deba ibaiaren estuarioa eta Oiartzun ibaiarena dira segida historikoan amonio eta fosfato kontzentrazioarik altuenak dituztenak. Bestalde, Bidasoa ibaiaren estuarioan besteetan baino amonio eta fosfato kontzentrazio baxuagoak neurtu dira. Hala ere, Bidasoa ibaiaren estuarioko datuen neurketak ibaiak eragin handia duen uretara mugatu dira. Beraz, ez dago baztertzerik gazitasun handiagoko tartean (estuarioaren erdiko eta beheko tartean), non biztanlegune nagusiak kokatzen baitiren, isuriak egon zitezkeenik.

### 3.3.2 Isurien adierazle diren mantenugaien egoera 2017.ean

**11. taulan** azaldu denez, 2017.ean, Gipuzkoako sei estuario nagusietan lagindutako eremuetan amonioaren eta fosfatoaren batezbesteko balioek kalitate helburua betetzen dute (egoera *Oso Ona* edo *Ona*). Lagin gehienak estuarioetako goi tartean jasotzen direla esan behar da hemen, eta beraz, ibaiaren ekarpenak du pisu gehien.

Mijoa ibaian (Saturraranen itsasoratzen den ibai txiki bat) 2017.ean ez da helburua lortzen amonioaren kasurako; egoera hau errepikatzen ari da erreka honetan duela urte batzutik hona.

Fosfatoari dagokionez, 2017.eko neurturiko maximoak, gehienak, ur oligohalinoetan egoera txarra aurkezten duen kontzentrazioarengandik ( $14 \mu\text{M}$ ) oso azpitik daude, Deban ikusitako balio bat ( $12,52 \mu\text{M}$ ) oso gertu badago ere (**11. taula**). Urolan (6 lagintze-puntua, Kondekua) 2017.eko maiatzan hartutako lagin batek fosfatoarentzat balio oso arraro bat aurkeztu zuen, eta zalantzazko datuen ezabaketarako adostutako irizpideak jarraiki ez da kontuan hartu (ikus Metodologia, **4. taula**).

Duela gutxiko urteetan fosfatoaren balio altu antzekoak edo garrantzitsuagoak antzeman dira, nahiz eta egoera hauek orokorrean maiztasun txikikotzat har daitezkeen. 2015.ean Urumea ibaiaren estuarioan, ekainan,  $\sim 13 \mu\text{M}$ -ko maximoa neurtu zen fosfatoarentzat, Martuteneko auzoan uholdeen kontra egindako lanen eraginez izan zitekeena. 2013. eta 2014.ean, Deba ibaiaren estuarioko goiko tartean, Oria ibaiaren estuarioan eta Mijoa ibaian,  $13\text{-}24 \mu\text{M}$  tarteko balioak neurtu ziren.

**11. taula.** Amonioaren ( $\text{NH}_4$ ) eta fosfatoaren ( $\text{PO}_4$ ) 2017.eko kontzentrazioen oinarritzko parametro estatistikoak. Batezbesteko balioentzat: hondo urdinean, egoera *Oso Ona*; hondo orlegian, egoera *Ona*; hondo laranja egoera *Neurrizkoa* edo okerragoa. Batezbesteko balioentzat erabili diren sailkapen-atalaseak **6. taulan** ur oligohalinoentzat azaldutakoak dira (ikus Metodologia). Maximoentzat: gorritz, ur oligohalinoan egoera *Txarraren* erreferentziarako balioei hurbiltzen edo gainditzen zaizkien balioak Bald (2005) azterlanaren arabera:  $63 \mu\text{M}$  amonioarentzat eta  $14 \mu\text{M}$  fosfatoarentzat.

	$\text{NH}_4$ ( $\mu\text{M}$ )					$\text{PO}_4$ ( $\mu\text{M}$ )				
	Datuak (#)	Min.	Max.	Batezbeste	Desb. tip.	Datuak (#)	Min.	Max.	Batezbeste	Desb. tip.
<b>Deba</b>	22	1,4	21,1	6,3	5,6	23	0,95	12,53	3,79	2,87
<b>Mutriku</b>	8	6,1	<b>76,7</b>	32,9	25,1	8	0,84	4,84	2,45	1,38
<b>Urola</b>	21	1,4	12,8	3,7	3,5	20	0,63	8,95	3,36	2,55
<b>Oria</b>	22	1,4	33,3	5,3	6,8	22	0,84	5,26	1,68	1,04
<b>Añorga</b>	8	1,4	4,4	2,6	1,3	8	0,74	2,32	1,24	0,51
<b>Urumea</b>	44	1,4	6,1	2,3	1,4	44	0,26	9,79	0,89	1,72
<b>Oiartzun</b>	13	1,4	31,1	6,6	8,2	13	0,74	8,74	1,91	2,10
<b>Bidasoa</b>	28	1,4	1,4	1,4	0,0	28	0,26	6,42	0,98	1,31
<b>TOTAL</b>	<b>166</b>	<b>1,4</b>	<b>76,7</b>	<b>5,1</b>	<b>9,3</b>	<b>166</b>	<b>0,26</b>	<b>12,53</b>	<b>1,88</b>	<b>2,16</b>

Amonio eta fosfatoaren muturreko balioek, ziurrenik, hondakin-uren isurketen existentzia islatzen dute, noizean behin Gipuzkoako zenbait estuarioetan eta, sarriagotan, Mijoa ibaian eragiten dutelarik.

Izatekotan, neurtu diren maximoak Euskal Herriko estuarioetako maximo historikoak (1994-2010) baino baxuagoak dira, 2017.eko kontzentrazioak Metodologia ataleko **4. taulakoekin** alderatzean

ikus daitekeen bezala. Izan ere, duela bi hamarkada, amonioarentzat 600  $\mu\text{M}$  eta 800  $\mu\text{M}$  inguruko maximoak neurtzen ziren eta fosfatoak 42  $\mu\text{M}$  ere izan zituen (**4. taula**).

Denborazko segida osoak erabiliz egin zen azterketa batean (20 urte baino gehiagoko neurketak) bi lagintze-puntu aukeratu ziren estuarioko, estuarioetako goiko tartetan kokatzen zirenak (ikus Revilla et al., 2011b). Neurketa gehien zituztenak zirelako eta, beraz, denbora-aldakortasuna aztertzeko egin behar den estatistika egiteko egokienak zirelako aukeratu ziren lagintze-puntu horiek.

Jarraian, epe luzeko joeren inguruan eta azken bi hamarkadetan amonioaren eta fosfatoaren kontzentrazioek izan dituzten bapateko aldaketen inguruan aipatutako azterketaren emaitzak laburbilduko dira. Testuinguru horretan, 2017. urteko emaitzak eztabaidatuko dira.

### *Mantenugaiak Deba ibaiaren estuarioan*

Deba ibaian (4 eta 5 lagintze-puntuak), 90eko hamarkada bukaeran amonio eta fosfatoen balio maximoek eta batezbestekoen izan zuten apaltzea oso nabarmena izan zen. Honek uraren kalitatearen hobetze aipagarria adierazi zuen (Revilla et al., 2011b).

Estuarioko tarte horretan, amonioaren batezbesteko kontzentrazioa 7  $\mu\text{M}$  baino baxuagoa zen 2016. urtean, eta fosfatoarenak ez zuen 4  $\mu\text{M}$  gainditzen. Balio hauek azken urteetako batezbestekoen antzekoak dira eta 2000ko hamarkadan ikusitako batezbestekoen azpitik kokatzen dira. Nahiz eta estuarioaren goiko aldean, oraindik, ur oligohalinoentzat finkaturko kalitate helburuetara iristen ez diren fosfatoaren kontzentrazioak ikusten diren, muturreko balio hauek noiz behinkakoak dira eta, beraz, urteko batezbesteko balioek *Egoera Ona* ematen dute **6. taulan** (Metodologia) adierazi diren irizpideak jarraiki.

Gainera, epe luzean beste elementu batzuk ere kontuan hartzen badira (goi tarteko oxigenoaren hobekuntza eta klorofilaren jeitsiera nabarmena), Deba ibaiaren estuarioan txikitzat jo behar da eutrofizazio arriskua, aurreko azterlanetan aipatu izan den bezala (Revilla et al., 2011c).

### *Mantenugaiak Urola ibaiaren estuarioan*

Urolan (6 eta 7 lagintze-puntuak) nolabaiteko apaltzea antzeman zen amonioaren eta fosfatoaren batezbesteko balioentzat 90eko hamarkada bukaeran (Revilla et al., 2011b). 2017. urteari dagokionez, lagintze-puntu horietan 5  $\mu\text{M}$  baino baxuagoa izan da amonioaren batezbesteko kontzentrazioa eta 3-4  $\mu\text{M}$  ingurukoa fosfatoarena. Balio hauek azken urteetako batezbestekoen tartean daude eta kalitate helburuak betetzen dituzte, bai ur oligohalinoentzat eta bai ur



mesohalinoentzat (ikus **6. taula**, Metodologia). Aurreko urteetan bezala, 2017. urtean eta estuarioko goi tartean, gaizki tratatutako uren noiz behinkako isuriak (Saburutx eta Gorostiaga zubien artean) adieraz ditzaketen fostatoaren balio altu samarrak ( $9 \mu\text{M}$  ingurukoak) ikusten dira. Eremu oligohalinoan (5 lagintze-puntua), klorofilak neurrizko eta balio altuak erakutsi ditu azken urteetan (2014. eta 2016. urteen artean); honek, biomasa fitoplanktonikoaren gehiegizko kopuru bat adierazten du tarte honetan (ikus **16. irudia**). Gehiegizko presentzia hau, hala ere, estuarioko goiko tartera mugatu da eta, gainera, ez da oxigeno defizitarekin erlazionaturiko arazorik antzeman. Horregatik, Urola ibaiaren estuarioan, oro har, txikitzat jo daiteke eutrofizazio arriskua, aurreko azterlanetan aipatu den bezala (Revilla et al., 2011c). Honako txostenean prezipitazioaren eta ibai-emariaren epe luzeko aldakortasuna aztertu da, eta azken urteetako udaberri lehor samarrek estuarioko goi tartean gertatzen diren aipaturiko fitoplankton metaketak erraztu ahal izan dituztela ikusi da (ikus hurrengo atala). Dena den, komenigarria litzateke mantenugaiaren epe luzeko aldakortasunaren azterketa egitea (2011. urtean egin zenaren antzekoa), klorofilaren okerrera egitea ez dela nitrogeno eta fosforo isuri antropikoen emendatzearen ondorioz egiaztatzeko.

### *Mantenugaiak Oria ibaiaren estuarioan*

Amonioaren batezbestekoaren bapateko apaltzea hauteman zen 5 lagintze-puntuan (San Esteban zubia) 1995.ean,  $50 \mu\text{M}$  ingurutik  $25 \mu\text{M}$  ingurura. Fosfatoak ere apaltzea izan zuen hurrengo urteetan,  $4 \mu\text{M}$  ingurutik  $3 \mu\text{M}$  ingurura.

Estuarioan behera dagoen lagintze-puntuan (4 lagintze-puntua, Aginagako ontziralekua), amonioak apaltzerako joera arinagoa izan zuen ( $25 \mu\text{M}$  ingurutik  $20 \mu\text{M}$  ingurura) eta fosfatoa egonkor mantendu zen azken 20 urteetan,  $2 \mu\text{M}$  inguruko balioak neurtu direlarik (Revilla et al., 2011b).

Aipatutako lagintze-puntuetan, 2017. urtean, 4 eta  $7 \mu\text{M}$  arteko batezbesteko kontzentrazioa du amonioak eta  $2 \mu\text{M}$ -tik gertukoa fosfatoak. Beraz, balio hauek 2016.ean neurtutakoaren antzekoak eta azken urteetako batezbestekoa baino apalxeagoak dira. Hau, 2016.eko apirilean martxan jarri zen Lasarteko eta Usurbilgo ur-hondakinen ponpaketa sistemaren ondorioa izan daiteke. Honela, ur hauek ez dira zuzenean estuariora isurtzen, baizik eta Urumeako hodi-biltzailera bideratzen dira eta, ondoren, Loiolako araztegiaren tratatzen dira.

Urteko batezbesteko balioen arabera, **6. taulako** (Metodologia) irizpideak jarraiki, Oria ibaiaren estuarioak 2017.ean egoera fisiko-kimiko *Oso Ona* aurkezten du. 2017. urtean amoniarentzat

kalitate helburua betetzen ez zuen balio bat (4 lagintze-puntua, estuarioaren goiko aldean, 33,3  $\mu\text{M}$ ) eta fosfatoarentzat balio altu samar bat (1 lagintze-puntua, estuarioaren beheko aldean, 5,26  $\mu\text{M}$ ) topatu ziren. Beraz, aipaturiko saneamendu neurriek kalitate fisiko-kimiko hobea lortu dutela dirudi.

Estuarioaren goiko tartean (4 lagintze-puntua) klorofilaren kontzentrazioak azken urteetan balio oso altuak aurkeztu ditu, txosten honetan azaldu denez (ikus **17. irudia**). Orian, arrora eta estuariora egiten diren isuriak gutxitzen joan dira azken urteetan, hainbat araztegi abiarazi baitira. Hala ere, arroaren neurri handia dela eta, eta ibaia estuarioaren bolumenarekiko duen emariagatik, beste kasu batzutan ez bezain nabaria egin daiteke arazketaren edo hiriko hondakin-uren isuria.

Hala eta guztiz ere, klorofilak beheranzko joera jarraitu du eta, duela hamarkada bat arte beheko eta erdiko tarteek gehiegizko biomasa bazuten ere, gaur egun ez dute arazo hau erakusten fitoplanktonaren hazkuntzarako denbora aproposenean (udaberria eta udazkena bitartean). Gainera, kontuan eduki behar da oxigenazio-baldintzak onak izan direla azken urteetan.

### *Mantenugaiak Urumea ibaiaren estuarioan*

Bai ibaiko uretan dagoen lagintze-puntu batean (3 lagintze-puntu) eta baita estuarioko goiko tartean dagoen batean ere (6 lagintze-puntua), amonioaren batezbesteko kontzentrazioaren bapateko apaltzea antzeman zen 90eko hamarkadan (30  $\mu\text{M}$  inguruko baliotatik, 5  $\mu\text{M}$  ingurura). Fosfatoari dagokionez estuarioko lagintze-puntu bakarrik hauteman zen apaltzea (2  $\mu\text{M}$  inguruko baliotatik, 1  $\mu\text{M}$  ingurura) (Revilla et al., 2011b).

Aipatu diren lagintze-puntuetan, 2017. urtean amonioaren batezbesteko kontzentrazioa 3  $\mu\text{M}$  baino baxuagoa da. Aldiz, fosfatoarena 1  $\mu\text{M}$  baino baxuagoa edo hurbilekoa da. Balio hauek azken urteetako batezbestekoen tartean daude eta, **6. taulako** (Metodologia) irizpideak jarraiki, egoera fisiko-kimiko *Oso Ona* adierazten dute estuarioaren goiko tartean.

Oxigenoa eta klorofila ere kontuan hartzen badira, Urumea ibaiaren estuarioan, oro har, eutrofizazio arriskua txikitzen har daiteke, txosten honetan eta aurreko azterlanetan aipatzen den bezala (Revilla et al., 2011c), nahiz eta, noiz behinka, klorofilaren balio oso alturen bat topa daitekeen, 2016.eko ekainekoa kasu ( $\sim 180 \mu\text{g l}^{-1}$ ).

### *Mantenugaiak Oiartzun ibaiaren estuarioan*

Ibaian dauden OIA12200 (Oreretako zubia) eta OIA13000 (Lezoko zubia) lagintze-puntuetako datuekin egindako joera-azterketek 90eko hamarkada bukaeran amonioaren eta fosfatoaren batezbesteko balioen apaltze nabarmenak egon zirela adierazten dute (Revilla et al., 2011b). Apaltzea bereziki nabarmena izan zen amonioarentzat (60-70  $\mu\text{M}$  ingurutik 5-10  $\mu\text{M}$  ingurura pasa baitzen).

Fosfatoaren batezbesteko kontzentrazioa 6  $\mu\text{M}$  ingurukoa zen 90eko hamarkadan, 2000ko hamarkadan 1  $\mu\text{M}$  (Oreretako zubian) eta 2  $\mu\text{M}$  (Lezoko zubia) izan zelarik.

Aldaketa hauek, estuarioak Oiartzun ibaiaren bidez jasotzen dituen uren kalitate fisiko-kimikoaren hobetze handia adierazten dute. Gainera, agerian jartzen da urte horietan egin zen saneamenduaren eragina, 90eko hamarkada bukaeran desbideratu baitziren isuri gehienak itsasertzera, Murgita senaiara (Revilla et al., 2011b).

Aipatu diren ibaiko lagintze-puntu horietan, 2017. urteari dagokionez, amonioaren batezbesteko kontzentrazioak ez du 5  $\mu\text{M}$  gainditzen, fosfatoarena 1,5  $\mu\text{M}$  baino baxuagoa delarik. Balio hauek azken urteetako batezbestekoaren ordenakoak dira eta, **6. taulako** (Metodologia) irizpideen arabera, egoera fisiko-kimiko *Oso Ona* adierazten dute estuarioak jasotzen dituen ibaiko uretan. Bestalde, 2017.ean Molinao errekan hartutako laginek balio altuagoak erakusten dute (batezbestez, amonioa  $\sim 17 \mu\text{M}$  eta fosfatoa  $\sim 4 \mu\text{M}$ ). Gipuzkoako Aldundiarentzat egindako beste azterlan batean, gazitasun altuagoko uretan neurtutako kontzentrazioek adierazten dute, batzutan, estuario honek mantenugaiaren ekarpen altuak jasotzen dituela (Muxika et al., 2017). Gainera, aipatu den bezala, erdiko tartean eta Herrera kaian biomasa fitoplanktonikoa handia dala adierazten du klorofilak (ikus **19. irudia** B, D), eta udaran kai honetan 3-4  $\text{mg l}^{-1}$  oxigeno kontzentrazioa neurtzen da, azaleko urentzat baxutzat jotzen direnak (ikus **25. irudia**, OIA16200S lagintze-puntua).

Beraz, Oiartzun ibaiaren estuarioaren eutrofizazio arriskua altua da, pairatzen dituen isuriengatik eta berritze-tasa baxua duten eremuetan klorofilak eta oxigenoak dituzten arazoengatik, Herrera kaia kasu. Hau ere aipatua izan da beste azterlanetan (Revilla et al., 2011c).

### *Mantenugaiak Bidasoa ibaiaren estuarioan*

3 eta 4 lagintze-puntuetan (goiko tartea) egin diren joeren azterketek, 2000ko hamarkadaren hasieran amonioaren kontzentrazioa apur bat apaldu zela adierazten dute, 4  $\mu\text{M}$  ingurutik 3  $\mu\text{M}$

inguruko balioetara pasa delarik. Fosfatoari dagokionez, ez dirudi azken 20 urteotan aldaketarik izan duenik, bere kontzentrazioa  $1 \mu\text{M}$  inguru izan delarik (Revilla et al., 2011b).


Aipatutako lagintze-puntuetan, 2017. urtean, amonioaren batezbesteko kontzentrazioa  $2 \mu\text{M}$  baino baxuagoa izan da, fosfatoarena  $1 \mu\text{M}$  baino baxuagoa izan delarik. Baldintza hauek ohikoak dira egoera fisiko-kimiko *Oso Ona* duten uretan (**6. taula**). Nahiz eta klorofila indizeak azken hiru urteetan gehiegizko biomasaren arriskua adierazten duen, oxigenazio baldintzak oso onak dira estuario honetan (ikus **20. irudia** eta **21. irudia**).

Aurreko azterlan batean (Revilla et al., 2011c), Bidasoa ibaiaren estuarioan erdi mailako eutrofizazio arriskua zegoela ondorioztatu zen, uraren egonaldia luze samarra delako eta oraindik ere estuarioaren beheko tartean isuriak egon litezkeelako.

### 3.4 Aldagai meteorologiko eta hidrografikoak


#### 3.4.1 Ibai- eta euri-erregimenaren anomaliak Urola estuarioan 1998-2016 denbora tartean

Aizarnazabalgo lagintze-puntuaren neurturiko emari datuak **27. irudian** erakusten dira. Hauetatik abiatuz, anomaliak batezbesteko ziklo estazioanalarekiko desbideraketa bezala kalkulatu dira.



**27. irudia.** Emariaren datuen denborazko eboluzioa Aizarnazabalgo aforaleku eta ur kalitatearen estazioan 1998-2016 denbora tartean zehar.

**28a irudiak** anomalia bai positiboak eta bai negatiboak erakusten ditu 1998. eta 2016. urte bitartean (hurrenez hurren, emariaren batezbestekoaren gaineko eta azpiko balioak adierazten dituztenak). Balio maximoa segidaren hasieran ikusten bada ere (1998.eko urrian), erregistroaren bigarren erditik aurrera (2007) anomalia positiboak errepikari bihurtzen dira, bereziki 2013. urtean zehar, emaria urtarrila eta uztaila bitartean, eta baita azaroan ere, oso altua izan zenean. Arraroa izan zen 2013. urtearen ondoren, 2014-2016 tartean anomalia positiboak neguan soilik ikusi ziren, udaberri eta udazkenean zehar anomalia negatiboak ikusi ziren bitartean. Azken urteetan, udaran zehar, emariaren balioak garai honetako ohizko mailan mantendu ziren.




**28. irudia.** Emariaren (a) eta prezipitazio estandarizatuaren (b) anomalien denborazko eboluzioen Hövmoeller diagrama, Aizarnazabalgo aforaleku eta ur kalitatearen estazioan 1998-2016 denbora tartean zehar.

**28b irudian** ikus daitekeen bezala, emariaren anomaliak anomalia plubiometrikoetan dute bere jatorria. Izan ere, Urola ibaiaren emariak estazio berean neurtutako prezipitazioari modu lineal eta aldebereko batean erantzuten dio. Bi aldagaien korrelazio koefizientea 0,78koa da, oso esangarria, alegia. Bi aldagaien arteko diferentzia txikiak, seguruenik infiltrazioa, euriaren interzeptazioa, e.a. bezalako prozesu fisiko desberdinetara loturik daude (Trigo et al., 2004).

### 3.4.2 Tokiko eta eskualdeko eskala geografikoa

Urtaroko zikloari lotutako maiztasun altuko aldakortasuna alboratuz, Urola ibaiaren emariaren datuekin egindako anomalia metatuen irudian (**29. irudia**) 90eko hamarkadako azken urteetatik 2007. urtera, gutxi gora behera, batezbestekoa baino balio baxuagoak errepikatzen direla ikusten da. Orduan, joera aldaketa bat ematen da, emari balioak zertxobait igo direnaren adierazle, 2013. urtean brastakoan haunditzen direlarik. Nahiz eta 2015. urte hasiera arte anomalia positiboak nagusitzen jarraitu, jaitsiera arin bat ikusten da ondoren.




**29. irudia.** Urola eta Gironde ibaien emariaren hileko datuen anomalia metatu estandarizatuak 1998-2016 denbora tartean zehar.

Nahiz eta Urola eta Gironde estuarioek arro hidrografikoen tamainari loturiko diferentziak izan, bi arroen emariak modu sinkroniko batean aldatu dira denboran zehar, salbuespen batzuk salbu erregistroaren hasieran (**29. irudia**). Bi zonetan, 2013. urtetik aurrera oso antzeko ereduak ikusten dira, eta honek 2013. urtetik aurrerako eredu aldaketak, Urolaren arroko aldaketei baino, eskualde edo baita Ipar Atlantiko eskalako erregimen klimatikoaren aldaketei erantzuten diela adierazten du.

### 3.4.3 Telekomexio klimatikoak

Jarraian, Ipar Atlantikoan aldakortasun atmosferikoaren eta bi sistemen emarien arteko erlazioak aztertuko dira. Ibai- eta euri-erregimenek urteen arteko aldakortasun handia dute. Ipar Atlantikoan aldakortasun atmosferiko modu nagusiak, Ipar Atlantikoko Oszilazioak (ingelesezko siglak jarraiki, NAO), euri-aldakortasunaren zati handi bat esplikatzen du eta, beraz, Iberiar penintsularen ibai-aldakortasuna (Rodríguez-Puebla et al., 2001; Trigo et al., 2004). Hala ere, Iberiar penintsulako iparraldean, ez dirudi NAO prezipitazioa eragiten duen faktore nagusia denik, batez ere neguan (Sáenz et al., 2001; Chust et al., 2011). Izan ere, Usabiaga et al. (2004)-ek Iberiar penintsulako iparraldean neguko prezipitazioaren aldakortasunaren bigarren modua soilik (aldakortasun totalaren  $\approx 21\%$ ) dagoela NAOrengatik gobernatuta ondorioztatzen dute. Gure gai honetan, neguko NAOk korrelazio arina eta ez esanguratsua erakusten du bi ibaien neguko emariekin 1998-2016 tartean.

**30. irudian** Urola ibaiaren emariaren eta prezipitazioaren, eta baita NAOren, hileko anomalia metatuak erakusten dira. Irudi honek emaria eta prezipitazioa orokorrean NAOren kontrako moduan aldatzen direla erakusten du, salbuespen batzuk izan ezik (azken hamarkadan bereziki). Hala ere, azterketa tarte guztia kontutan hartuz, hau ez da korrelazio esanguratsu batean islatzen, NAO eta ibai- eta euri-erregimenen arteko erlazioa konplexua eta ezegonkorra baita (Chevalier et al., 2014).



**30. irudia.** Urola ibaiaren emariaren eta prezipitazioaren, eta NAOren hileko datuen anomalia metatu estandarizatuak 1998-2016 denbora tartean zehar.

### 3.4.4 Emariaren aldakortasunari eta bere klorofilaren gaineko eraginari buruzko ondorioak

Urola ibaiaren ibai-erregimenaren azterketatik, 19 urtetako segida berri batetik abiatuz, ondorengo ondorioetara irits daiteke:

Urola ibaiaren emariaren anomaliak arto bereko euri anomalien aurrean modu lineal eta aldiberekoan erantzuten dute. 1998-2016 denbora tartean zehar, anomalia nabarmenenak 2013-2016 tartean gertatu dira: 2013. urtea aipatu daiteke emari anomalia oso altuak aurkeztegatik; eta 2014-2016 tartea ere bereizgarria izan zen, negu garaian erakutsitako anomalia positiboengatik, eta udaberri eta udazkenean zehar erakutsitako anomalia negatiboengatik.



Aipatu behar da ere, 2014.etik 2016.era (biak barne), emariak uda garaian ez duela kasik joerarik erakusten.

Emaitzek, eskualde mailan, ibai erregimena hamarkaden arteko aldakortasun garrantzitsua dutela erakusten dute. Urola eta Gironde ibaien emarien datuak antzeko modu batean aldatzen dira azterketan zehar. Honek, Urola ibaian ikusitako aldakortasunak, tokiko aldaketei baino, eskualde eskalan gertaturiko aldaketa bioklimatikoei erantzuten diotela adierazten du. Maiztasun baxuko aldakortasun atmosferikoa (NAO) ez da Iberiar penintsulako iparraldean euri- eta ibai-erregimenak gobernatzen dituen faktore nagusia. Bere eragina konplexua da eta denboran zehar aldatzen doa, ezin izan delarik elkartze jarraibide argia ezarri.

Urola ibaian berriki izan den klorofila gehienezkoen maiztasun eta magnitude igoera esplikatzaketen faktoreei dagokionez, hauek 2014., 2015. eta 2016.eko udaberriko emariaren anomalia negatiboen nagusitasunarekin bat egiten dute. Honek efektu meteorologiko bat adierazten du estuarioaren goi aldeko eutrofizazio mailaren igoeraren arduradun bezala, ibai-hustuketa baxuago batek uraren egonaldia luzatuko baitu zona horretan, eta ondorioz, fitoplankton populazioak ez dira kanporantz eramanak izango. Dena den, mantengaiak joerak aztertzea aholkatzen da, estuarioaren goi-ibarrean, klorofilaren igoera faboratu zezakeen faktore gehigarri bezala, azken urteetan nitrogeno eta fosforo ekarpen antropikoak igo diren zehazteko.

## 4 ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Gipuzkoako sei estuario nagusietan 2017.ean egin diren lagintze eta jarraipena kontuan hartzen badira, jarraian zerrendatzen diren ondorio eta gomendioak egin daitezke:

- **Klorofilaren** kontzentrazioa Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaien estuarioetan neurtu zen maiatza eta urria bitartean, bakoitzean 4 lagintze-kanpaina osatu zirelarik.
- 2017.ean, klorofila kontzentrazioak klima epeleko estuarioetan espero zitekeen tarte normalean zeuden. Maximoak udaberrian edota udaran ikusi ziren, Oria eta Urumea ibaien estuarioetako goiko aldean. Muturreko balio hauek ( $20\text{-}40 \mu\text{g l}^{-1}$  ingurukoak) aurreko urtean neurturiko kontzentrazio altuen oso azpitik izan ziren (zehazki, Urola eta Urumean 2016.eko udaberrian  $100 \mu\text{g l}^{-1}$  gainditu ziren).
- Denbora-eskala ezberdinetan (egunerokoa, urtarokoa, urtetik urterakoa, e.a.) baldintza hidrografikoen aldakortasun handia duten sistemak dira estuarioak. Denbora-eskala laburrean ematen den aldakortasunak datuen interpretazioa zailtzen du eta, askotan, epe luzeko joerak estali ditzake. Hala izanik, sistema hauen bilakaeraren azterketak datuak era sistematikoan eta urte batzutan zehar hartzera derrigortzen du. Gainera, teknika matematiko eta estatistikoek egokiak izan behar dute itxuraz benetakoak diruditen, baina batezbesteko baldintzen adierazgarri ez diren, aldaketak baztertzeko. Hurrengo txostenetarako klorofilaren kontzentrazioaren epe luzeko bilakaera 90. pertzentilaren 6 urtetako batezbesteko mugikorra erabiliz aztertzen jarraitzea gomendatzen da, apirila eta urria bitarteko datuak erabiliz (biak barne). Gainera, europar legediarekin bat datozen irizpideak jarraituz (Uraren Arteztaraua), balio estatistiko hau estuarioaren kalitate ekologikoaren adierazle edo indikatzaile bezala erabilgarri izan daiteke ere.
- Segida historikoko klorofilaren biomasari dagokionez, baldintza okerrenak aurkeztu dituzten estuarioak Oria eta Urumea ibaienak dira, beren goiko tartean (klorofilaren 90. pertzentilarentzat  $60 \mu\text{g l}^{-1}$ -tik gertuko balioekin). Hau, 2000ko hamarkada erdialdera klorofilaren muturreko balioen maiztasunaren emendatzeari zor zaio hori. Presio antropikoaz gain, urte horietako agorraldi luzeko baldintzek ere eragina izango zuten, fitoplanktona estuarioen goiko aldean gelditzea eragingo baitzuten.
- Bestalde, Urola ibaiaren estuarioko goiko tartean eta Bidasoakoaren erdiko tartean biomasa fitoplanktonikoaren igoera ikusten da 3-4 garai berrietan. Ur hauetan (oligohalinoak Urolaren kasuan eta mesohalinoak Bidasoaren kasuan) 90. pertzentilaren balioak  $30\text{-}40 \mu\text{g l}^{-1}$

inguruan kokatzen dira. Eremu estuariko hauetan klorofilaren balio altuen maiztasun edota magnitudearen igoerak nolabaiteko eutrofizazio maila baten menpe daudela adierazten du; dena den, honek ez du oxigenoan erantzun negatiborik eragin eta, gainera, gehiegizko biomasa ez da estuario hauen luzera guztian zehar ikusten. Faktore meteorologikoez eragina izan zezaketen, konkretuki, 2014-2016. urteetan udaberri garaia ezuagarri izan zuten prezipitazio eta ibai-emari gutxiagoko baldintzek beharbada uraren egonaldia (erresidentzi denbora) igoko zuten. Baina klorofilaren igoera mantenguzaien ekarpen handiago baten aurreko erantzuna ere izan zitekeen. Ildo honetan, interesgarria izango litzateke jakitea eremu horietan presio antropikoa handitu den. Gaur egun, Oria ibaiaren estuarioko goiko aldeak (oligohalinoa) klorofilaren 90. pertzentilean Urola eta Bidasoakoen antzeko balioak erakusten ditu,  $35 \mu\text{g l}^{-1}$  inguruan. Oria estuarioko goiko aldean biomasa fitoplanktonikoaren adierazleak beharazko joera jarraitu zuen 2000ko hamarkadaren bukaeratik, baina joera hori eten egin da azken urteotan.

- Gipuzkoako estuarioetan klorofilaren aldakortasun espazialak agerian uzten ditu haien arteko alde hidrografikoak. Ibaiaren emaria estuarioko uraren bolumenarekiko handia denean, ura azkar berritzen da. Estuario horietan, diluzio prozesuak eta fitoplanktonaren populazioen itsasoranzko garraioak gailentzen dira. Hauxe da Deba, Urola, Oria eta Urumea ibaien estuarioen kasua. Beraz, klorofilaren maximoak barealdi atmosferikoa dagoenean gertatzen dira (normalean, udan), eta erdiko eta goiko tarteetan (mareak eragindako hartu-emanapaalagoa baita). Muturreko balio horiek, beraz, gazitasun gutxiko urei loturik daude, tarte oligohalino (0,5-5 PSU) edo mesohalino (5-18 PSU) bezala ezagutzen direnak.
- Bolumen handiagoa eta, beraz, ura gordetzeko joera handiagoa duten sistemetan, klorofilaren kontzentrazioa era homogeneoagoan banatzen da hedadura osoan. Oiartzun eta Bidasoa ibaien badien edo estuarioen barne aldeko kasua da. Horregatik, estuario hauetan, maximoak ur polihalinoetan (18-30 PSU) eta euhalinoetan (30-35 PSU) egon daitezke.
- Bidasoako badien, lagindutako lagintze-puntua polihalinoa da eta biomasa fitoplanktonikoaren adierazleak kalitate helburua betetzen du. Beste estuario batzuek ere (Urola, Oria eta Urumea) bere kanpoeneko tarteetan antzeko gazitasuneko urak dituzte eta, era berean, klorofilaren 90. pertzentilarentzat finkatutako helburua betetzen dute. Hala ere, Oiartzun ibaiaren badien, inpaktua adierazten duen maila gaintzen da bi lagintze-puntutan: portu erdian eta Herrerako kaian. Biak euhalino ezaugarrikoak dira eta beraien biomasa fitoplanktonikoaren metaketa beharbada iturri antropikodun mantenguzaien ekarpenei erantzuten die, eta baita uraren berritze tasa baxuari ere.

- **Disolbatutako oxigenoari** dagokionez, denbora-segida oso luze bat dago, 25-30 urte ingurukoa, estuario guztientzat. Batezbesteko kontzentrazioarik altuenak ibai-eragin handia duten lagintze-puntutan neurtzen ohi dira. Baxuenak, hipoxiaren adierazgarri, Urumeako lagintze-puntu batzutan, Añorga errekan eta Mijoa ibaian (Mutriku) neurtu ziren denborazko segidaren lehenengo urteetan; baita Oiartzun ibaiaren estuario osoan zehar ere, bokalearen inguruan izan ezik.
- 90eko hamarkada bukaeratik, disolbatutako oxigenoaren kontzentrazioaren goranzko joerak antzeman dira sei estuarioetan. Joera hauek, egin diren saneamendu-lan garrantzitsuek eta isurien desbideratzeek ahalbidetu dituzte. Hala, Oiartzun ibaiaren estuarioan urek oxigeno-maila handiagoa dute 1996.ean isurien hein handi bat Murgita senaiara desbideratu zenetik, eta 2000ko hamarkadan arazketa abian jarri zenetik. Urumean, urteroko oxigenoaren minimoak askoz ere apalagoak bihurtu ziren 90eko hamarkadan egin ziren saneamendu-lanei esker.
- Eragile antropikoez gain, eragile klimatikoak (euria eta ibaien emariak) ere oxigenoak urtez urtera duen aldakortasunaren erantzule dira. 1999 eta 2007 bitartean oxigenoaren apaltze arina antzeman zen lagintze-puntu askotan, meteorologiarekin zerikusia duten gorabehera naturalek eragindakoa izan daitekeena (urteko prezipitazioen gutxitzea eta urte batzutako udako lehortea). Gainera, 2014-2017. urteek agorraldi denbora luzea aurkeztu dute, udazken barnean ere luzatuz, eta urrian eta azaroan oxigenoaren minimo batzurekin bat egin dutelarik.
- 2017.ean zehar, orokorrean, Gipuzkoako estuarioetan oxigenazio baldintza onak ikusten dira. Hau da 2000ko hamarkada bukaeratik hona lagintze-puntutan topatu den ohiko egoera,  $5 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$ -tik beherako kontzentrazioak topatzea zaila delarik. Salbuespen gisa,  $3\text{-}4 \text{ mg} \cdot \text{l}^{-1}$  inguruko balioekin, azken urteetan Herrerako kaia aipa daiteke, agorraldi garaian.
- Presio antropikoarekin zerikusi gehien duten mantenugaiei dagokienez (**amonioa** eta **fosfatoa**), sei estuario nagusien goiko tarteetan, egoera fisiko-kimiko *Oso Ona* edo *Ona* duten inguruei legozkien batezbesteko balioak neurtu dira 2017.ean. Honek azken urteetan arroetan egindako saneamendu-lanen eragina islatzen du. Bestalde, noiz behinka estuario eta erreka batzuetako goi tarteetan topaturiko fosfato kontzentrazioek mantenugai honetan aberats diren uren ekarpena islatzen badute ere, hauek ez dira maiz ikusten.
- Oiartzun ibaiaren estuarioan gazitasun altuagoko urentzat (estuarioaren beheko eta erdiko aldeak) beste informazio iturriak badaude eta hauek adierazten dute, oraindik, origen antropikoko mantenugai ekarpenak zuzenean estuariora egiten direla.
- Aurreko urtetan bezala, 2017.ean hondakin-uren isurketa sarriak adierazten dituzten muturreko amonio balioak hautematen dira Mijoa ibaian.

- Sentikortasunari (hidrografia), presioari (mantenugaiak) eta inpaktuari (klorofila eta oxigenoa) lotutako alderdiak kontuan hartuz, estuario guztietan gaur egun **eutrofizazio-arriskua** baxua dela onartzen da, Oiartzunen (non handia baiten) eta Bidasoan (non neurrizkoa baiten) izan ezik. Azken estuario hauek, lehen adierazi denez, uraren erresidentzi denbora luzeagoa dute, eta honek eutrofizazioarekiko sentikortasun handiagoa izatea dakar.
- **Hurrengo lanetarako, klorofila-lagintzeak** fitoplanktonaren hazkuntza garaian egiten jarraitzea gomendatzen da (udaberri eta udazken bitartean). Neguan ez da lagintzerik gomendatzen, ur-zutabearen argiztapen baldintzak mugatzaileak baitira, uholdeak ohikoagoak baitira eta fitoplanktona estuarioan finkatzea eragozten baita. Gainera, ibaiek garraiatutako landare-ekaiak eragindako klorofilaren kontzentrazio altuak, kontuan hartu beharko ez liratekeenak, neurtzeko arriskua dago. Beraz, klorofila gutxienez lau hilabetetan lagintzea gomendatzen da, **apirila bukaera eta urria bukaera bitartean**.
- **Azken ondorio bezala**, nabarmentzekoa da estuarioen jarraipen sistematikoaren garrantzia, sistema hauen ingurumen-kalitatearen bilakaera zehazteko nahikoa luzeak diren denborazko segidak eduki ahal izateko. Zentzu honetan, gomendagarria da 2018.ean lagintzen jarraitzea.



## 5 BIBLIOGRAFIA

- Bald, J., 2005. *Propuesta para la evaluación del estado físico-químico de las aguas costeras y de transición del País Vasco*. Doktorego Tesia. Nafarroako Unibertsitatea. 263 or.
- Barnston, A.G., R.E. Livezey, 1987. Classification, seasonality and persistence of low-frequency atmospheric circulation patterns. *Monthly Weather Review*, 115: 1083-1126.
- Belzunce, M.J., 2011. *Análisis de sedimentos del emisario submarino de Zarautz: control del impacto ambiental en el área de influencia del emisario entre los años 2004 a 2011*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketakoko Departamentuarentzat prestatutako txostena. 20 or.
- BOE, 2011. Real Decreto 60/2011, de 21 de enero, sobre las normas de calidad ambiental en el ámbito de la política de aguas. Boletín Oficial del Estado, Zenb. 19, Sek. I., or. 6854-6870. <http://www.boe.es>.
- BOE, 2013. Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. Boletín Oficial del Estado, Zenb. 137, Sek. I., or. 43501-43601. <http://www.boe.es>.
- BOE, 2015. Real Decreto 817/2015, de 11 de septiembre, por el que se establecen los criterios de seguimiento y evaluación del estado de las aguas superficiales y las normas de calidad ambiental. Boletín Oficial del Estado, Zenb. 219, Sek. I., or. 80582-80662. <http://www.boe.es>.
- BOE, 2016. Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro. Boletín Oficial del Estado, Zenb. 16, Sek. I., or. 2972-4301. <http://www.boe.es>.
- Borja, Á., M.J. Belzunce, R. Castro, J. Franco, F. Villate, V. Pérez, 2000. *Seguimiento ambiental de los estuarios del Nervión, Barbadún y Butrón durante 1999*. Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia-arentzat prestatutako txosten argitaragabea. 265 or. + eranskinak.
- Borja, Á., M.J. Belzunce, J. Franco, M. Garmendia, I. Muxika, M. Revilla, V. Valencia, 2009. *Informe sobre zonas sensibles a la eutrofización en el País Vasco*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Agencia Vasca del Agua-Uraren Euskal Agentzia-arentzat prestatutako txostena. 193 or.
- Borja, Á., J. Bald, M.J. Belzunce, J. Franco, J.M. Garmendia, J. Larreta, I. Muxika, M. Revilla, J.G. Rodríguez, O. Solaun, A. Uriarte, V. Valencia, I. Zorita, I. Adarraga, F. Aguirrezabalaga, I. Cruz, A. Laza, M.A. Marquiegui, J. Martínez, E. Orive, J.M<sup>a</sup> Ruiz, S. Seoane, J.C. Sola, A. Manzanos, 2010. *Red de seguimiento del estado ecológico de las aguas de transición y costeras de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. AZTI-Tecnalia Agencia Vasca del Agua-Uraren Euskal Agentzia-arentzat prestatutako txostena. 21 Ale, 707 or.
- Carletti, A., A.S. Heiskanen (Eds.), 2009. *Water Framework Directive intercalibration technical report. Part 3: Coastal and Transitional waters*. European Commission, Joint Research Centre, Institute for Environment and Sustainability, JRC Scientific and Technical Reports.
- Chevalier, L., B. Laignel, N. Massei, S. Munier, M. Becker, I. Turki, A. Coynel, A. Cazenave, 2014. Hydrological variability of major French rivers over recent decades, assessed from gauging station and GRACE observations. *Hydrological Sciences Journal*, 59(10): 1844-1855.

- Chust, G., Á. Borja, A. Caballero, X. Irigoien, J. Sáenz, R. Moncho, M. Marcos, P. Liria, J. Hidalgo, M. Valle, V. Valencia, 2011. Climate change impacts on coastal and pelagic environments in the southeastern Bay of Biscay. *Climate Research*, 48: 307-332.
- Fontán, A., J.G. Rodríguez, J. Franco, J. Larreta, 2010. *Análisis de calidad del agua e informe anual del estado de los estuarios de Gipuzkoa: Año 2009*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 81 or.
- Franco, J., 1994. *Variabilidad espacio-temporal de la biomasa y producción del fitoplancton el estuario de Urdaibai*. Doktorego Tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Franco, J., R. Castro, Á. Borja, F. Villate, 1998. *Seguimiento ambiental de los estuarios del Nervión, Barbadún y Butrón durante 1997*. Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia-arentzat prestatutako txosten argitaragabea. 227 or. + eranskinak.
- Garmendia, M., S. Bricker, M. Revilla, Á. Borja, J. Franco, J. Bald, V. Valencia, 2012. Eutrophication assessment in Basque estuaries: Comparing a North American and a European method. *Estuaries and Coasts*, 35(4): 991-1006.
- Harding, L., 1994. Long term trends in the distribution of phytoplankton in Chesapeake Bay: roles of light, nutrients and streamflow. *Marine Ecology Progress Series*, 104: 267-291.
- Mallin, M.A., 1994. Phytoplankton ecology of North Carolina estuaries. *Estuaries*, 17: 561-574.
- Montero, N., M.J. Belzunce-Segarra, A. Del Campo, J.M. Garmendia, L. Ferrer, J. Larreta, M. González, M.A. Maidana, M. Espino, 2011. Integrative environmental assessment of the impact of Pasaia harbour activities on the Oiartzun estuary (southeastern Bay of Biscay). *Journal of Marine Systems*, S252-S260: 109-110. doi:10.1016/j.jmarsys.2011.06.002.
- Muxika, I., V. Valencia, 2011. *Control de las aguas receptoras de los vertidos de las zonas costeras de Getaria y Mutriku*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuarentzat prestatutako txostena. 45 or.
- Muxika, I., Á. Borja, A. Fontán, J.M. Garmendia, J. Larreta, I. Menchaca, M. Revilla, V. Valencia, I. Zorita, 2012. *Estudio ambiental de la zona costera de Mompás y de los estuarios de los ríos Oiartzun y Urumea (años 2017)*. AZTIk Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Obra Hidraulikoen Departamentuarentzat eta Añarbeko Urak-entzat prestatutako azken txostena. 159 or. + eranskinak.
- Orive, E., J. Franco, I. Madariaga, M. Revilla, 2004. Bacterioplankton and phytoplankton communities. En: Borja, Á. & M. Collins (Eds.), *Oceanography and Marine Environment of the Basque Country*. Elsevier Oceanography Series, vol 70. Elsevier, Amsterdam, pp. 367-393.
- Revilla, M., M. Garmendia, J. Franco, Á. Borja, 2010. A new method for phytoplankton quality assessment in the Basque estuaries (northern Spain), within the European Water Framework Directive. *Revista de Investigación Marina*, 17(7): 149-164. <http://www.azti.es>.
- Revilla, M., J.G. Rodríguez, A. Fontán, 2011a. *Análisis de la calidad del agua e informe anual del estado de los estuarios de Gipuzkoa: Año 2010*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuarentzat prestatutako txostena. 87 or.
- Revilla, M., M. González, J.G. Rodríguez, I. Zorita, 2011b. *Análisis de calidad del agua e informe anual del estado de los estuarios de Gipuzkoa: Año 2011*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 109 or.
- Revilla, M., Á. Borja, J. Franco, I. Menchaca, V. Valencia, I. Zorita, 2011c. *Estudio de la sensibilidad a la eutrofización de los estuarios del País Vasco en 2010*. AZTI-Tecnalia Fundazioak Agencia Vasca del Agua-Uraren Euskal Agentzia-arentzat prestatutako txostena. 63 or. + eranskina.
- Revilla, M., I. Muxika, 2012. *Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen azterketa eta beraien egoeraren urteroko txostena: 2012. urtea*. AZTI-Tecnalia Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 54 or.



- Revilla, M., I. Muxika, V. Valencia, 2013. *Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen azterketa eta beraien egoeraren urteroko txostena: 2013 urtea*. AZTI-Tecnaliak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 62 or.
- Revilla, M., J.M. Garmendia, 2014. *Gipuzkoako estuarioen ur-kalitatearen azterketa eta beraien egoeraren urteroko txostena: 2014 urtea*. AZTI-Tecnaliak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarentzat prestatutako txostena. 66 or.
- Rodríguez-Puebla, C., A.H. Encinas, J. Sáenz, 2001. Winter precipitation over the Iberian peninsula and its relationship to circulation indices. *Hydrology and Earth System Sciences*, 5: 233-244.
- Sáenz, J., J. Zubillaga, C. Rodríguez-Puebla, 2001. Interannual variability of winter precipitation in northern Iberian Peninsula. *International Journal of Climatology*, 21: 1503-1530.
- SCOR-UNESCO, 1980. Determination of chlorophyll in seawater. Report of the intercalibration tests. *UNESCO Technical Papers in Marine Science*, nº 35, 20 pp.
- Strickland, J.D.H., T.R. Parsons, 1972. *A practical handbook of seawater analysis*. Fisheries Research Board of Canada Bulletin, 167 (2<sup>nd</sup> edition). Ottawa.
- Trigo, R.M., D. Pozo-Vazquez, T.J. Osborn, Y. Castro-Díez, S. Gámiz-Fortis, M.J. Esteban-Parra, 2004. North Atlantic Oscillation influence on precipitation, river flow and water resources in the Iberian Peninsula. *International Journal of Climatology*, 24: 925-944.
- URA, 2015. *Propuesta de Proyecto de Plan Hidrológico, Revisión 2015 – 2021. Parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. MEMORIA - ANEJO VIII: Seguimiento y evaluación del estado*. Urria 2015. <http://www.uragentzia.euskadi.eus/nuevo-plan-hidrologico-cantabrico-oriental-2015-2021/u81-000333/es/>
- Usabiaga, J.I., J. Sáenz, V. Valencia, Á. Borja, 2004. Climate and Meteorology: variability and its influence on the Ocean. In: Borja, A. and Collins, M. (eds.). *Oceanography and Marine Environment of the Basque Country*, Elsevier Oceanography Series, 70: 75-95, Elsevier, Amsterdam.
- Valencia, V., J. Franco, Á. Borja, A. Fontán, 2004a. Hydrography of the southeastern Bay of Biscay. En: Borja, Á. & M. Collins (Eds.). *Oceanography and Marine Environment of the Basque Country*, Elsevier Oceanography Series, 70: 159-194.
- Valencia, V., Á. Borja, J. Franco, I. Galparsoro, E. Tello, 2004b. *Medio físico y dinámica de los estuarios de la Costa Vasca. Aplicaciones en Ecología y Gestión*. AZTIk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarentzat prestatutako txostena. Argitaragabea. 92 or.
- Villate, F., J. Franco, L. González, I. Madariaga, A. Ruiz, E. Orive, 1991. A comparative study of hydrography and seston in five estuarine systems of the Basque Country. En: Elliot, M. & J.P. Ducrottoy (Eds.). *Estuaries and Coasts: Spatial and Temporal Intercomparisons*, ECSA 19 Symposium, Olsen & Olsen: 97-104.
- Weiss, R.F., 1970. The solubility of nitrogen, oxygen and argon in water and seawater. *Deep-sea Res.* 17, 721-735.

## 6 ERANSKINAK

### 6.1 Klorofilako datuak Deba ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
DEB50000S	Sasiola zubia	6	Goikoa	2017/05/23	10:00	0,14	0,86
				2017/07/04	9:40	0,18	4,81
				2017/08/28	10:05	0,22	7,50
				2017/10/03	10:50	0,25	4,93
DEB53400S	Lasao baserria	3	Erdikoa	2017/05/23	11:15	1,25	0,63
				2017/07/04	10:40	1,43	4,33
				2017/08/28	11:25	7,65	4,13
				2017/10/03	10:55	3,36	4,81
DEB54900S	Deba zubia	1	Behekoa	2017/05/23	12:20	17,48	0,37
				2017/07/04	11:25	14,19	0,98
				2017/08/28	12:25	19,96	1,23
				2017/10/03	12:10	20,00	2,70

### 6.2 Klorofilako datuak Urola ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
URO55000S	Gorostiaga zubia	5	Goikoa	2017/05/30	11:30	4,81	1,02
				2017/07/11	10:50	5,35	9,29
				2017/08/29	11:05	0,48	4,47
				2017/10/10	11:10	7,48	2,13
URO57000S	F.E.V.E. zubia	3	Erdikoa	2017/05/30	12:20	15,96	0,61
				2017/07/11	11:50	16,75	7,21
				2017/08/29	12:05	8,13	6,01
				2017/10/10	12:10	11,21	1,03
URO58700S	Zumaiako	1	Behekoa	2017/05/30	13:10	21,80	0,29
				2017/07/11	12:40	20,66	1,46
				2017/08/29	13:10	13,26	1,86
				2017/10/10	13:05	24,80	0,99

### 6.3 Klorofilako datuak Oria ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
ORI62400S	Lehenengo ontziraletuak Aginaga	4	Goikoa	2017/06/06	11:10	0,11	24,16
				2017/07/26	10:55	0,51	25,88
				2017/09/05	9:50	0,68	43,71
				2017/10/17	10:55	0,63	13,29
ORI67200S	Ontziola (Atxega)	2	Erdikoa	2017/06/06	12:10	7,30	0,84
				2017/07/26	11:50	15,08	3,08
				2017/09/05	11:25	2,63	1,55
				2017/10/17	12:10	19,77	1,15
ORI70700S	Itsasoranzko irteerako kai-muturra	0	Behekoa	2017/06/06	13:15	24,00	2,06
				2017/07/26	12:45	25,70	2,22
				2017/09/05	12:25	29,70	0,51
				2017/10/17	13:05	31,70	0,85

### 6.4 Klorofilako datuak Urumea ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila
URU44000S	Txomin-Enea auzoko zubia	6	Goikoa	2017/06/13	10:30	1,21	3,53
				2017/08/01	12:40	8,46	27,46
				2017/09/12	12:00	0,14	3,09
				2017/10/24	9:02	3,58	4,11
URU46600S	Burdinezko zubia	9	Erdikoa	2017/06/13	12:00	11,54	0,35
				2017/08/01	11:35	26,80	4,23
				2017/09/12	11:05	0,80	5,15
				2017/10/24	10:10	15,33	1,10
URU49000S	Kursaal zubia	11	Beheko	2017/06/13	12:55	18,69	1,06
				2017/08/01	10:25	34,80	0,89
				2017/09/12	9:20	24,20	3,47
				2017/10/24	10:50	23,99	0,68

## 6.5 Klorofilako datuak Oiartzun ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
OIA14000S	Portu barrualdea Oiartzun ibaia	6	Goikoa	2017/05/03	9:45	28,80	0,36
				2017/06/20	10:15	31,60	1,51
				2017/08/21	10:00	30,01	5,58
				2017/09/18	10:30	27,10	0,67
OIA15000S	Molinao erreka	4	Erdikoa	2017/05/03	10:25	34,60	0,33
				2017/06/20	10:43	33,10	1,16
				2017/08/21	10:40	33,90	13,80
				2017/09/18	11:07	27,70	0,76
OIA16700S	Itsasoranzko irteerako kanalea	2	Behekoa	2017/05/03	11:30	33,80	0,27
				2017/06/20	11:30	34,70	1,16
				2017/08/21	11:45	35,00	7,32
				2017/09/18	11:45	31,30	0,62
OIA16200S	Herrera kaia	1	Kaia	2017/05/03	10:40	33,60	0,34
				2017/06/20	11:00	33,10	0,85
				2017/08/21	11:00	34,60	13,81
				2017/09/18	11:21	20,40	0,99

## 6.6 Klorofilako datuak Bidasoa ibaiaren estuarioan

Lagintze-puntua	Kokapena	Kodea	Tartea	Data	Ordua	Gazitasuna (PSU)	a-klorofila ( $\mu\text{g l}^{-1}$ )
BID07600S	Behobiako zubia	4	Goikoa	2017/05/09	10:30	0,75	6,01
				2017/06/27	11:20	6,89	9,84
				2017/08/22	11:40	4,22	2,38
				2017/09/26	11:05	0,99	1,37
BID10350S	Santiago zubia (Irun)	5	Erdikoa	2017/05/09	11:00	10,16	19,42
				2017/06/27	11:55	13,09	3,43
				2017/08/22	12:20	10,41	2,40
				2017/09/26	11:45	3,76	1,74
BID13300S	Arrantzaleen kofradia	6	Behekoa	2017/05/09	11:40	25,10	2,99
				2017/06/27	12:20	34,50	0,63
				2017/08/22	13:15	31,17	3,19
				2017/09/26	12:55	19,34	0,77